

Herririk Herri |4|

Lokaletan etxebizitzak egiteko arauak lantzen dabil Zaldibarko Udala



Berbaz |9|

Urko Rodriguez: "Ikastolaren 40. urtemuga kalean ospatuko dogu"

Amalurra |30|

Natura ezagutzeko ikastetxeendako programa didaktikoak Toki Alain

'Bizkaiko Bildotsa' aurkeztu dabe, kalitatearen ikur

BERRIZ • Erraldek, bere parte diren harategi zein artzainek eta EHNEk sinatutako akordioagaz, 'Bizkaiko Bildotsa' kanpaina martxan ipini dabe. 4.000 bildots merkaturatuko ditue; igaz baino %25 gehiago.

10

Nicolas Zimarro idazleak liburu bi argitaratu barri ditu

KULTURA • Durangoko Azokan aurkeztu zituen joan zen eguen goizean Nicolas Zimarro idazle abadiñarrak plazaratu barri dituen euskarazko olerki liburu eta gaztelerazko nobela luzea.

13

Elorrioko Buskantzak eta Sasikoak derbia jokatu dabe

KIROLA • Pronostiko argirik barik neurtuko dira etzi areto-futbolearen goren doguzen talde biak. Sasikoa da faborito, baina elorriarrak denporaldi bikaina egiten dabilz. Beraz, indarrak parean dagoz.

23

URTEKARIA 2008

Eskuetan dozue 2008ko azkenengo ANBOTOa. Datorren barikuan gure 'Urtekaria' jasoko dozue zeuen etxeetan. 2009ko urtarrilaren 9an bueltatuko gara. Zorionak eta Urte Barri On guztioi!



• Mallabia

2008-2011 Berdintasun Plana aurkeztu dabe Udalean

4

• Atxondo

Mendi Asteagaz bat eginez rokodromoa jarriko dabe

4

• Elorrio

Kainaberak elkartasun jaialdia ospatuko dau zapatuan

6

Durangoko udal artxibo digitala sarean ikusgai

> Lehenengo fasean, 1553tik 1832ra bitarteko agiriak digitalizatu ditue.

> Bigarren ekinaldian Erdi Aroko dokumentuen txanda izango da.

2



Arte eta Historia Museon dagoen artxiboa Kalebarriko liburutegi barrira lekualdatuko dabe. Judit Fernandez

maderas
ONAGOTTIA
egurrak
ELORRIO - MARKINA Tel.94 658 25 24 - 605 77 01 78

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Udal artxiboa digitalizatzen

Udal Artxiboa osatzen daberen jatorrizko agiriak digitalizatu eta internetean jasoko ditue 2009an

Udal Artxiboa osatzen daberen jatorrizko agiriak digitalizatu hasita dago Durango, horreek zaintzea eta eskuragarritasuna zein kontsulta erraztea helburu hartuta. 1553tik 1832ra arteko osoko bilkuren akta-liburuak kronologikoki digitalizatu ditue dagoeneko, beren beregi sortu eta 2009an erabilgarri egongo den web orrian ipintzeko. Denera, 12.000 irudi inguru aztertzeke aukera eskainiko dabe; irudi bakotzak liburutako folio bat islatzen dau. Gainera, kontsulta errazteko datu-basea sortu dabe, bilkura bakoitzean landutakoa laburtuz.

Bigarren ekinaldi baten, artxi-boan gordetako Erdi Aroko dokumentazioa digitalizatzea da hel-

burua; horrek 18.000 irudi inguru izango ditu eta kontsulta errazteko datu-basea be bai. Ondoren, artxiboko gainerako dokumentazioa digitalizatuta eskaintzea da asmoa, Jose Angel Orobio-Urrutiak azaldu dauenez.

1553tik 1832ra arteko osoko bilkuren aktak kronologikoki digitalizatuta dagoz jadanik

1820tik 1980ra bitarteko akta-liburuak eta herriko elizetako, ermitetako eta kofradietako fabrika-liburuak be jasoko ditue internetean, kontu-liburuak ez eze, Orobio-Urrutiak argitu dauenez; eta, Durangoko hainbat aldizkari


zein II. Errepublikako, Guda Zibileko eta Gerraosteko agiriak be bai.

Artxibo historiko oparoa


Udaletxean den administrazio-artxiboak—kudeaketa administratiboa lagunduz udaleko sailei zerbitzua emoteko— eta 1985az geroztik Arte eta Historia Museoan dagoen artxibo historikoak osatzen dabe Udal Artxiboa. Orobio-Urrutiak azken horren garrantzia gogoratu dau: “Fondo aberatsa izateaz gainera, bakarrenetakoa da XVI. mendetik aurrera akta eta kontu-liburuen sail osoak dituen”. 1405etik 1820ra arteko 8.763 espediente dagoz: “1554an Durango erre bazen be, Andra Marin gordetako agiriak be badaukaguz”.

Jaurlaritzatik 7.700 euro inguruko laguntza lortu dabe, eta, gura leukie bide beretik jarraitzea. Udal Artxiboa Kalebarriko liburutegira eroango dabe: “Azterketarako mahaia jarriko ditue, baina, behin digitalizatu eta gero ezingo dira jatorrizko agiriak erabili”. ■ A.B

Artxibo historikoa XVI. mendetik aurrera akta- eta kontu-liburuen sail osoak dituen bakarrenetakoa da




Artxibo historikoan milaka agiri dagoz. Astola aldizkaria. T. Angoitia



Gabonak

Durango 2008



Durangoko Udalak 2009 urte zariantsua opa dizue

Abenduak 24 Asteazkena	17:00etan Zabalarra Eskola	Txokolafada
	18:00etan Zabalarra Eskola, Askatasun Etorb., Zumalekarregl, Ermodo, Landako	Olentzeroren Kalejira
	19:00etan Landako Gunea	Harrera



Aldarrikapenerako be izaten dira Azokako egunak

AHTaren kontrako
aldarria egin dabe;
independentziaren
aldekua be bai

Hormigoizko bidoi batera kateatu ziren bi lagun astelehenean Durangon, auto zein trenen joan-etorria trabatuz, Ezkurdiko pasaguneko langetan, Abidura Handiko Trenaren aurka protesta egiteko. Kulturaren erakusleho zabala dogu Durangon Euskal Liburu eta Disko Azoka izaten den egunotan. Baita aldarrikapenerako be.

Ertzaintza eta suhiltzaileak bertaratu ziren kateak moztera eta ordu bi ingururen barruan atxilotuta eroan zituen. Aske geratu ziren ondoren, baina epailearen aurrean agertzeko deia jaso-

ko dabe. EuskoTren eta Renfe AHTaren proiektuan "parte-hartzaile nagusietakoak" direla salatu dau Durangoko AHT Gelditu! Elkarlanak. Manifestazioa be deitu eben domekan. Aitatu daigun Etxerat-ek deituta egunero egin direla elkarteratzeak euskal preso- en eskubideen alde.

Abenduaren 6an, *Autodeterminazioaren bidetik independentzia* lelopean manifestazioa egin eben, ezker abertzaleak deituta, Durangoko kaleetan. Goizean, Azokako kartela aukeratzean genero ikuspuntua ez zela aintzat hartu salatzeke, elkarretaratzea egin eban Bilgune Feministak. ■ A. B.

**Bilgune Feministak
elkarretaratzea deitu eban
Azokaren aurrean**



AHT Gelditu Elkarlanak manifestazioa deitu eban; Etxeratek elkarretaratzeak. J.Fernandez

Bateginezek 15. urteurren jaia ospatuko dau gaur

Landako Gunean izango da, 16:30etik aurrera

Eskerrikasko, Durangaldea! goiburu horren babesean ospatuko dau Bateginezek 15. urteurrena, gaur. Landako Guneak batuko dau hainbat jarduera batu eta elkarte askoren babesa izan dauen jaia.

Ekimenak helburu bikotxa dauka: gobernuz kanpoko erakundeak 1993an jaio zenetik egin dako lana erakustea, eta, Durangaldeko herritarrei San Miguel de Pochutako (Guatemala) errealtatea hurreratzeko. Sentsibilizazio lan handia egin dela gogoratu dabe, "azken urteetan jente faltagaitik aukerarik izan ez arren".

Udalaren laguntza be jaso dauen jaialdian Durangoko eta

**Lankidetzajolas eta tailerrak
ez eze Oihulari Klownen
'Otiaticoh' ikuskizuna
batuko ditu jaialdiak**

Pochutako hainbat ikaslek *Zelan ikusten dozu zu bezalako neska/mutil baten bizitza Pochutan/Durangon?* gaiagaz egindako marrazkiak be erakutsiko dira.

Donazino eta besoetakotzeen bitartez edo uanean uneko laguntza zein bolondres lanagaz eskainitako laguntasuna eskertuko dabe; baita zer premina dagoen ikusi eta egitasmoak aurrera ateratzen Pochutan diharduen Apsadec erakundearen lana be: "Eurak ditugu begi eta esku han".

Lankidetzajolas eta tailerrak eta txokolatea izango dira, txikiendako puzgarriak eta nagusien dako bidezko merkataritza mahaia ez eze. Pochutako umeen gabonetako zorion agurrak be helaraziko deutseez aita eta ama besoetakoei, eta, Oihulari Klownen *Otiaticoh* ikuskizunak agurtuko dau kooperazioaren jaia izan gura dauena. ■ A.B.

Gorabidek bolondresak behar ditu

Adimen urritasunak jotako pertsonen alde lanean diharduen Gorabide elkarteak bolondresen lankidetzak behar dau, aisialdi taldean jardun eta neguan Durangaldean hainbat jardueragaratzeko. Horretara, hainbat jardueraz disfrutatzeke aukera izango dabe adimen urritasuna daukien 38 lagunek.

Gaitasun ikastaro baten ondoren, begirale barriek adimen urritasunak jotako pertsonendako astialdi talde bat hartuko leukie kargu. "Aisialdia era dibertigarri eta gogobetea igitzeko aukera eskainiz, euren intregrazinoa bultzatu gura dogu aisialdi taldeagaz, autonomia eta autoantolaketa gaitasuna bultzatuz". Pedro Pablo Astarloa 1ean daukie Durangon aisialdi zentroa. Bolondres izateko 18 urte izatea baino ez da behar. Ume eta gazteen aisialdirako begirale titulua be lortu leiteke: 94 443 12 10. ■ A.B.

TAOa berraztertzea eskatu dau Aralarrek

Hainbat proposamen luzatu ditu horren baitan

2007ko apiriletik etenda dagoen trafiko eta aparkamenduaren ordenamenduaren (TAO) berrazterketari ekiteko eskatu deutso Aralarrek Gobernu Taldeari. "Urtea amaitu aurretik horregaz hasteko konpromisoa hartu eban EAJk azken udalbatzarrean. Abendua badoa, eta ez dakigu ezer. Igazko urritik dago Udalean Leberri eskatutako txostena".

**Gune laranja urdin izatea
eta Landakon gune berdea
sortzea proposatu dabe**

TAOagaz lotuta hainbat proposamen egin ditu Aralarrek. Gune laranja urdin bihurtzea, batetik: "Urtean 55 euro ordainduta, bai gune laranja bai urdinean aparkatu leiteke; gainera, gune laranja hutsik dagoz".

Landako erakustazokako aparkalekua merkeagoa eta ordu-tegi malguagodun gune berde bihurtzea be eskatu dabe: "Hile edo urteko bonoekin —90 eurotik behera— alokatzeke 25 leku gorde leitekez lanera datozenentzat".

Hirugarren gunea

"Etxetik gertu aparkatzeko, baina, mogimendua mugatzeko" 3. gune bat sortzea be aztertu dabe, eta, merkatariei biztanleen tratamendua emotea: "Ibilgailu komertziala edo jarduera ekonomikorako beharrezkoa bada". Irekiera baime nagaz lotuta, urtean 80 euro litzaitez. Etxez etxeko medikuek doan aparkatzea eta elbarriena gaia aztertzea be eskatu dabe.

Mogikortasun jasangarrirako tresna deritzo TAOari: "Baina planifikazioa falta da eta beharrezkoak dira aparkaleku disuasorioak, bizikleta-karrilak eta abar". ■ A.B.

GALLASTEGI
gallastegiharategi@euskalnet.net
1955 ean sortua

HARATEGI
ARTISAU ERAMA
ESPEZIALIZATUA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

**EXCAVACIONES
JON**

MONTAGUZZI TIT LAROI INDUSTRIETAK
HONDAKINBERRIA

Jon Garbagoitia Gallastegi

PROYECTOS DE OBRAS DE TIERRA - OBRAS DE MANTENIMIENTO
Tel: 946 17 26 54 - FAX: 946 17 26 55

OTXANDIO

Nekazaritza eta Artisautza Azoka domekan

Sasoiko baserriko produktuen — Idiazabalgo gaztaia, ahuntz gaztaia, ogia, pastelak... — eta artisautzaren erakusleho bihurtuko da, domekan, Enparantza Nagusia. Hamarkada bete dauen azokak 40 erakustoki inguru batuko ditu — baserriko produktuek beteko ditue 25 inguru — eta Otxandioko ekoizle eta artisauak ez eze, Arratia, Durangaldea eta Lea-Artibaikoak be etorriko dira. Iparraldetik foie ekarriko dabe. Nekazaritza eta Artisautza Azoka 10:00ak inguruan zabalduko dabe eta 15:00ak arte iraungo dau.

Moxala burduntzian

Aizkolariaren saioak eta trikitilariak berotutako jai giroak ez dabe hutsik egingo domekan. Gainera, nobedade lez, moxal pintxoak eta raziñoak eskainiko ditue, 12:00ak eta 13:00ak bitartean: "Bezperan, 22:00etan, hasiko gara moxala burduntzian erretzen. Biharamunean pintxoak eskainiko doguz, eta raziñoak be bai etxera eroateko zein Pasealekuan egokituko doguzen mahaietan jateko". Bazkaltzeko gonbita luzatu dabe.

Enparantza Nagusian 40 erakustoki inguru batuko dira 10:00etatik 15:00ak arte

Azokaren harreragaz pozik dagoz, antolatzaileetako bat den Felix Ajuriak azaldu dauenez, ebo-luzinoa ikusita, batez be: "Herri-tarrak pozik dagoz eskaintzagaz, eta baserriarrak be behar beste saltzen dauela ikusten dau; erraza ez dena". Herriaren "neurriko" azoka antolatu guran hasi ei ziren: "Gabonetako kontsumorako erakargarri izan leitekezenak ekartzea eta baserriarrak eurek produzitukoak saltzeko aukera izatea zen eta da orain be helburua". ■ A.B.

ZALDIBAR

Lokaletan etxebizitzak egiteko arautegia

Udalak ezarritako baldintzak betetzen dituen 10 lokal dira etxebizitza bilakatu leitekezenak

Udalean ordezkaritza daukien lau alderdiek, aho batez adostutakoa da herriko hainbat lokal etxebizitza bilakatzeko baldintzak arautuko dituen ordenantzaren hasierako onarpena.

Zehatz esateko, herriko 10 lokal dira ordenantza horrek arautzen dituenak: Udalaren balorazioaren arabera, urteetan erabilera jakinik izan ez daben lokalak dira —kokapenagaitik edo bestelako arrazoiengaitik, komertziorako edo bes-

telakoetarako balio ez dabenak. San Andres eta Kooperatiba auzoetan eta Iturriotz kalean dagoz.

San Andres zein Kooperatiba auzoetan eta Iturriotz kalean dagozen lokalak arautu ditue

Aitatutako lokalok Udalak etxebizitza tasatuen ordenantzak zehazten dituen prezio eta baldintzak bete beharko ditueela nabarmendu dabe udalbatzarrean. Ordenantza horretan jasotzen

denez, merkatu librean etxebizitzek daukien prezioa ordaindu ezin baina babeseko etxebizitzetako bat eskuratzeko markatutako diru-sarrerak gainditzen dituen herritarren arazoari erantzuteko sortutako ordenantza da 10 lokalok be arautuko dituenak. Prezioaren gainekoa ez eze, Udalak markatutako beste baldintzetako bat saldu gura leukenak Udalarri jakinazo beharri jagokona da.

Lokalok be ekainean onartutako bizileku tasatuen ordenantzaren bidez arautzea dabe helburu: "Infraetxebizitzaren hedapenari aurre egitea eta sortu leitekezen erabilera aldaketak ordenatzea", ordenantzaren araebera. ■ I.E.

MALLABIA

Berdintasun Plan barria aurkeztu dabe

Mallabiko andra-gizonen berdintasuna bultzatuko dauen 2008-2011 Plana aurkeztu dau Udalak. Planaren alea Udaletxean hartu leiteke eta horri iradokizunak egiteko epea urte amaierara artekoa da.

Andrentzako seguruak ez diren lekuak identifikatu eta konponbidea emongo deutse Hirigintza Sailak

Berdintasunak "Udaleko sail guztiak" hartuko dituela iragarri dau Aitor Loiola alkateak. Hirigintza Sailak, besteak beste, "andrentzako seguruak ez diren herriko lekuak" identifikatu ditu eta konponbidea emongo deutse. Berdintasun Planak gizarte bizitzako alor guztiak kontuan izango ditu. Hasteko, eskolaumeen artean, "joko, jostailu eta ipuin ez sexistak" bultzatuko ditu. Bigarrenik, herriko enpresetan sexu-jazarpen kasuetarako protokoloa landuko dau Udalak. Genero indarkeria pairatu daben andrakatenditzeko beste protokolo bat garatuko dau.

Andra zaintzaileen zama arintzeko, eguneko zentro bat aurreikusi dau Planak

Azkenik, andra nagusien beharrianak arretaz aztertuko ditu Udalak. "Herri bizitzan parte hartzeko" hainbat ekimengarrituko dau, eta "bakardadea gaitzeko laguntasuna" eskainiko deutsee. Andra zaintzaileen zama arintzeko, eguneko zentro bat martxan jartzea aurreikusi dau Planak. ■ Maria González

ATXONDO

Mendi Asteko ekitaldietan eskalada nagusi

Gaztetxeak eta Udalak antolatutako II. Mendi Asteari hasiera emoteko, Willy Bañales eskalatazailleak *Escaladas en diferentes cumbres del mundo* berbaldia emongo dau gaur, arratsaldeko 19:00etan, pleno aretoan.

Zapatu goizean, barriz, bizikleta martxa eta pilota patidua antolatuko ditue. Rokodromoa egokituko dabe frontoira bertaritzen diren guztiendako. Arratsaldeko 19:00etan, eskalada txapelketan eskualdeko eskalatazailleek jardungo dabe.

Domekako mendi martxan parte hartu gura dabenendako goizeko 10:00etarako jarri dabe hitzordua. Memaia mendiko gailurrera abiatuko dira.

XII. Nekazal Azoka hartu eban joan zen domekan Apatako plazak

Eguraldia lagun izan eben domeka goizetik Atxondoko Nekazal Azokaren XII. edizioan. Baserriarrak landutako ortuariak erostera eta domeka goizerako Apatan antolatu zituen ekitaldiekin goiza pasatzera hurreratu ziren, eguraldi onak bultzatuta, ehunka bisitari. Frontoia ikuslez bete eben pilota partiduak izan ziren Nekazal Azokaren egunerako beste proposamena.



ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

Aurretiaz prestatutako janariak
Deneriko CATERING zerbitzuak

Arriandi industrialdea
Tf: 94 681 44 00
48215 IURRETA/ Bizkaia

ALBERDI
crecer original

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel.-Faxa: 94 623 18 03

HONDA
STIHL
SAME
BCS
VIKING

**Bezeroek arrazoi dute
oraingoan ere...**



**Badakite non eta
noiz erosi!**

abenduan
%30
erainoko
deskontua

**Bazatoz autoa erostera, ala
gurago dozu zain jarraitu?**



Kondia

IURRETA: 94 681 55 69
EIBAR: 943 20 76 50



Grupo Kondia



Etormobil

ABADIÑO: 94 621 71 31
ARRASATE: 943 77 01 44
EIBAR: 943 20 09 66

IURRETA

Desadostasunak Fundigelen eta Udalaren artean

Fundigelek igaz Arriandin enkan-tean hartutako lursailaren prezioaren gaineko desadostasunak ditue Udalak eta enpresak. Azken horrek dino ordainduta dituela jagokozen urbanizazio gastuak, eta Udalarik 530.000 euro eskatzen deusaz horren kontra aurkeztutako demandan. Bide zibiletik sartutako erreklamazio-demanda horren aurrean, Udala aurkeztea onartu barri dau udalbatzarrak.

Udal agintarien ustez, baldintza-orrian argi agertzen dalursaila hartzen dauenak zama-urbanistikoei be aurre egin behar deusela. Fundigelen ustez, barriz, hori ez da argi agertzen. ■ A.B.

IZURTZA

Abenduko lehenengo asteburuan -abenduaren 6an, 7an, eta 8an- Jubilatuen Elkarteak ikusgai ipinitako argazkiak ikustera batu da hainbat herritar. Abenduaren 6a San Nikolas eguna izanik, gainera, mezaren, Mendigain dantza taldearen emanaldiaren eta lutzaren ondoren, herritar ugari hurreratu zen erakusketa ikustera.

Izan be, Mendigain dantza taldearen eta herriaren historiaren isla be badiren argazkiak erakusketarako izteko, hainbat izurtzar hurreratu dira. Bando batean egin eben jenteak etxean daukazen argazkiak erakusketarako itzi daizen deialdia, eta askok erantzun dabe. Batu ditueen argazkiak gehiago izan arren, espazio falta dela-eta, 130 argazki inguru ipini ditue erakusketan. Argazkien alboan herriko dantza taldearen kronologia-oharrak ipini zitueen bisitarien gidari izan zeitezen. Argazki zaharrenetariokoak 1850. urte ingurukoak direla azaldu dabe erakusketaren antolatzaileek. ■ I.E.

ELORRIO

Nikaragua ardatz hartuko dauen elkartasun jaialdia

Kainaberak antolatuta, domekan Arriolan

Azken urteotako ohiturari eutsiz, Elkartasun Jaialdia antolatu dau Kainabera gobernuz kanpoko erakundeak, *Denon artean, baietz etxe bat!* lelopean. Arriola antzokia izango dau agertoki 12:00etan hasita. Aurten, Nikaraguako Mozonte herrixkan garatzen dihardueen etxe "duinak" egiteko egitasmoa dau ardatz. Bertan bolondres jardun dauen Kainaberako Inma Escribanok hango arazoan barri emongo dau.

Musika, dantza eta kantua izango dira nagusi bertako ume, gazte eta helduen eskutik. Izan

be, herriko hainbat elkarte eta kolektibok parte hartuko dabe. Jaialdian batutako dirua, barriz, Mozonten etxeak eraikitzeke erabiliko dau Kainaberak.

Mozonte herrixkan bolondres izan den Inma Escribanok hango arazoak azalduko ditu

Mozonte eta inguruetakoko herri-herrietako arazo handienetakoa Chagas gaixotasuna da; etxeetako hormetako arrakaletan bizi den zomorrotatik bat da sorburua. Jente asko kutsa-

tzen ei dau gaitxotasun larri horrek. "Nerbio sisteman, bihotzean eta liseriketa aparatuan eragiten dau, eta tratamendurik barik hilkorra izan leiteke", Kainaberakoek azaldu dabenez: "Sufritzen dabenak behartsuak direnez, enpresa farmazeutikoek ez deusie garrantziarik emoten".

Etxe bakoitza, 3.600 euro

Osasunerako kaltegarri diren beste faktore batzuk be badira Mozonten: tximinirik bako ezkaratzak, desnutrizioa, familia handiak espazio txikian... Horren aurrean, Kainaberaren bitartez, etxe "duinak" egiteko egitasmoa abiatu dabe, apurka-apurka aurrera doana: "Etxe eta inguru egoki bat ez da pentsatu leitekeen besteko garestia: 3.600 euro dira. Elorrion, 7.200 lagun izanik, bakoitza 50 zentimo jarrita etxe bat eraikitzeke lain izango geunke". ■ A.B.

GARAI

Gaztaña Erre Eguna bihar, frontoian

Orain hiru urte antolatu eben lehenengoz Gaztaña Erre Eguna Garain, eta harrezkero ez deusie hutsik egin hitzorduari. Oraingoan be gonbita luzatu dau Udalak gaztainak erre eta elkarregaz jateko. Zapaturako egin dabe hitzordua, frontoian, 17:00etan.

Errepidea moztuta

Ordurako egun osoz zabalik izango da Garai gurutzatzen dauen foru errepidea. Herriko plazagaz lotuta begiratoki barria egiteko hasi diren lanen eraginez aste osoan moztuta egon da ibilgailuendako errepide hori; 08:30etik 17:30era ezin izan dabe bertatik igaro. ■ A.B.

Mendigain dantza taldearen argazkiak erakusketan batuta



Erakusketan dagozen argazki zaharrenetariokoetako bat.

MAÑARIA

Sendabelarrei buruzko zikloa udabarrian be

Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak eskainita sendabelarren eta preparatuen inguruan azaroan izandako ikastaroak hainbat lagun batu ditue hiru barikutarako antolatutako saioetan. Belarren askotariko erabileren inguruko informazioa jaso dabe ikastarora hurreratu-takoek, eta azken egunean hainbat preparatu egiten be ikasi dabe: pomadak, olioak eta alkoholakegiten ikasteko aukera izan dabe. Azaroan egindako hiru saioetan parte hartu dauen jentea oso gustura aritu denez, udabarrian ikastaroa berreskuratu dabe, eguraldia lagun izanda, belarren bila osteratxoak egin ahal izateko. ■ I.E.

URTEA ONDO HASTEKO

RENAULT SCÉNIC EXPRESSION
1.5DCI 105CV
Klimatizagailuarekin, ABS, ESP,
6 airbag, euri eta argi sentsorea

13.900*€



2007-AN MATRIKULATUAK

URTE BETEKO BERMEAREKIN

AURREZTE IZUGARRIA IA-BERRIETANI ETA ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARITZEN DIZUGU
** PROBA EZAZU RENAULT GAURSA-N ETA BILBOBERRI-N!

RENAULT OCASIÓN

GAURSA AUTOAK, S.A. ARRIANDI, 12 IURRETA TELF. 94 620 33 00 www.gaursa.com

*V.A.P. transakzioa gaituak berria. Salmerri amezartu barikoko ezarria. Hurreratu bea eta emanari behera deusie dabilen izan daiteke. ** Arrisku orotarako aseguruia deusie lehenengo urtean 200€-ko gaituarekin, multimediarreko julean PCF Bepan S.A. deusieko kumulatua-rekin inmatulatu, 31/12/08-urte eragarrira, partikulat bako erakunde eta 18 hilabete bako gaituarekin Renault Ocasion-ekin julea izan, beste inmatulatu adierazten dabilenak.





BERRIZ

Herri bideetako trafikoa arautzeko ordenantza onartuta

Eguazteneko udalbatzarrean Udaleko langileen Udalhitz hitzarmena be onartu eben



Ibilgailu bat Berrizen, behar ez den tokian aparkatuta.

Gai asko izan zituen eguazten arratsaldeko udalbatzarrek. Besteak beste, hiriko bide publikoetan trafikoa, erabilerak eta segurtasuna arautzen dituen ordenantza onartu eben, aho batez. Ordenantzak txarto aparkatutako ibilgailuei eragingo deuse, besteak beste. Orain arte, txarto aparkatuta zegoen ibilgailuei –bigarren ilaran lau argiekin zegozenei, esaterako– oharrak bakarrik ipintzen eutseezen. Otsailaren hasieratik aurrera, isunak jarriko deuseez. Beraz, hobe aurreantzean kotxea horretara bideratutako tokietan iztea.

Bestalde, Udaleko langileen 2008/2010 Udalhitzeko hitzarmena be onartu eben EAJren botoekin. Ezker abertzaleak testu horri zuzenketa bi proposatu eutsazen, onartu ez zirenak. Batetik, hitzarmena urtero-urtero errebisatzea. Bestetik, soldaten urteko igoera KPIa gehi %1ekoa izatea jasotzen dau hitzarmenak. Karmen Amezuak proposatu eban %1 horren igoera lineala izatea: “Bestela, gehien eta gutxienez kobratzen dabenean aldea urterik urtera handitzen doa. Justuagoa dela uste dogu”.

Jabier Azpitarteren esanetan, “Udalhitz EUDEL eta sindikatuek adostuta dago; gainera, neurri horrek etorkizunean desorekak eta arazoak sortzen ditu”. Horren adibide batzuk emon zituen ■ J.D.

ABADIÑO

Parisera eroan dabe Eneko Zarrabeitia

Goi Pirinioko Gerde herriko plazan atxilotu eben astelehenean 27 urteko Eneko Zarrabeitia abadiñarra, etakide izatea egotzita. Polizia frantsesak galdekatu dau terrorismoaren aurkako zuzendaritzaren egoitzan. Barri agentziek zabaldu dabenez, Baionako komisaldegitik Parisera eroan zitueen eguazten honetan Zarrabeitia eta beste bi atxilotuak (Iriondo eta Artetxe), eta epaileak gaur deituko ditu deklaratzera.

Bitartean, atxiloketaren barri izan zenetik, egunero manifestazioak izan dira Abadiñoko Zeilaieta auzoan zehar, 19:30ean Txanporta plazan hasita, *Eneko eta besteak askatu* lemapean.

Konpromisoa bete daian eskatu deusie Udalari

AHTaren gainean orain urtebete aurkeztutako mozinoko puntuak bete barik dagozela dinoe

Duela urtebeteko udalbatzar batera eroan zitueen hiru eskarriak bete ez izana egotzi deutso AHT Gelditu Elkarlanak Abadiño-ko Udalari, eta nabarmendu, “herriko baso eta zelaiak errespetatzen ez ditueen bitartean, Udala eta bere dinamika” ez ditueela errespetatuko. Abiadura Handiko Trenaren kontrako taldearen berbetan, orain urtebeteko udalbatzarrean, ezker abertzaleko aldeko bozkagaz eta Talde Independentearen absentzinoagaz onartu egin eben

aurkeztutako mozinoa: informazioa eta eztabaidarako foroak zabaltzea eta proiektuagaz ez kolaboratzea jasotzen eban mozinoak. Idatzi hori bete barik geratu dela, eta euren berbetan, “Udalak hartutako konpromisoa bete ez dauela ikusirik” burutu eben “protesta”: Mendiola auzoko eraikitze-lanetako materiala ipini eben pleno aretoko mahai gainean, eta AHTaren kontrako aldarriak zabaldu. Udalbatza bertan behera itzi eban ondorioz alkateak. ■ I.E.

DURANGALDEA

Ikasleak mendekotasunaz jabetzeko ekimena

Eskolaumeak adinekoen mendekotasunaz jabeazteko *Neuk ere zaindu ditzaket aitita eta amama* egitasmoa abiatu dabe, Zaindu egitasmoaren baitan. Durangaldeko LHko 2. eta 3. zikloko 1.786 eskolaumeek parte hartuko dabe adinekoen balizko mendekotasunak normalizatzea eta horri buruz hausnartzea helburu dauen ekimenean. Durango, Elorrio, Abadiño, Iurreta, Atxondo, Zaldibar eta Otxandioko 13 eskolek parte hartuko dabe.

Ikasgelan gaia lantzeko bereziki sortutako ipuin edo istorio baten irakurketa dramatizatua da ekimenaren oinarria; horretarako, La Papa antzerki taldekoen laguntza izango dabe. Gero, marrazki edo idazlanen bitartez, laguntza behar daben eta inguruan ditueen adinekoei laguntzeko erak adieraztea eskatuko deusez eskolaumeei. Erakusketa irekia be aurreikusi dabe.

IURRETA

Informazio-pantaila elektronikoa martxan dago

Informazio pantaila elektronikoa jarri dabe Bixente Kapanaga kaleko urbanizazioaren barruan, eta, 28.000 euroko inbertsinoa eskatu dau. Eguneko 24 orduan izango da martxan, askotariko informazioa zabaltzea dauela helburu: kulturekintzak, deiak, intereseko informazioa... Udalaren eta herritarren artean “informazio iraunkorra mantentzeko bideak” sortu guran Tokiko Agenda 21eko ekintza planean batutako jarduerara da.



DURANGO

Elkartasun karabana prestatzen

Tindufeko (Aljeria) kanpamendu sahararretara bideratzeko jakiak batzeko kanpaina abiatu dabe Herria auzo elkarteak eta Durangoko Udalak. Arroza, lekaleak, pasta, azukrea, atuna, sardinak eta konpresak batu eta eroango ditu aurten Elkartasun Karabanak. Halan be, galkorrak ez diren bestelako produktuekin laguntzea be badago. Landako, Kurutzia, Nevers eta San Antonio-Santa Rita ikastetxeetan zein Frai Juan de Zumarraga Institutuan eta Jesuitetan, hilaren 16a arte luzatuko da kanpaina. Sabecon eta Eroskiren saltokietan, barriz, hilaren 20a arte. Abadiño, Atxondo, Berriz, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria eta Zaldibarren be egingo dabe bat.

Santo Tomas eguna ospatuko dabe Frai Juan de Zumarraga institutuan

Santo Tomas eguna ospatuko dabe aurten be Durangoko Frai Juan de Zumarraga Institutuan. Azokaz gainera, bestelako ekitaldiak be izango ditue. Besteak beste, mus txapelketa azkarra zortzi erregetara eta esku-pilota erakustaldia. Futbito eta sokatira txapelketa eta herri-kirol saioa be izango dabe ikasleek, aerobick erakustaldia ez eze, jakin eragin dabenez. Aitatu dai-gun sariak be banatuko ditueela eguerdian.

MOMOTXO TABERNA
Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

EGIA AROZTEGIA EBANISTERIA
ZUZENEKO SALMENTA
Sukaldeak - Ateak - Armairuak neurria - Oholtzak
Tel. eta Faxa: 681 77 46
Etxea: 620 25 65 - Mugikorra: 989 70 37 54
Tobira kalea, 54
48200 DURANGO

Arrike Liburudenda
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

SANTI ESTANKOA
Fray J. de Zumarraga, 4 Durango • Tel.: 94 620 39 93

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua
Andra Mari kalea, 9 DURANGO
Tel.: 94 681 50 17

Krisiak ez dau Azokan eragin

Gerediaga elkarte "pozik" agertu da 43. Euskal Liburu eta Disko Azokak izan dauen harreragaz. Antolatzaileek salmenten gaineko datu zehatzik ez daukien arren, argitaletxeek eta diskoetxeek jakinarazitakoaren arabera, krisiak ez dau lar eragin. Abenduaren 5etik 8ra bitartean Durangon ikusitakoa iruditan batu dogu.



BERBAZ >

“Etorkizunean izango doguzen erronkei ilusinoz heldu gura deutsegu”

Kurutziaga Ikastola sortu zela 40 urte bete dira aurten. Datorren domekan ospakizunak kalera aterako ditue.



Judit Fernandez

Urko Rodriguez •

Kurutziaga Ikastolako zuzendaria

- Ondarrutarra da
- 2002tik ikastolako zuzendaria

buruari tinko eusten deutsagu. Geure abiapuntua horixe da; beti be, munduko ikuspegi batetik. Hizkuntzetan be aintzindariak izan gara. 13 urtegez DBHko 3. mailan irakasgai bat ingelesez emoten dabe. Lau urtegez hasten den prozesua da. Eleanitz proiektuaren helburua ikastolatik euskara, erdara eta ingelesa menperatuz irtetzea da.

Zer erronka daukazue?

Kalitateko hezkuntza eskaintzen jarraitzea, geure izaeraren barruan. Datozen proiektuei ilusinoz ekin gura deutsegu. Euskal curriculum, kompetentzietan oinarritutako irakaskuntza.... Hausnarketa estrategikoa egiten dihardugu.

40. urtemuga dela-eta, hainbat ekitaldi antolatzen diharduzue. Maiatzean, ikasle ohien bazkari erraldoia egin genduen. 450 lagun elkartu ginen, eta oso ondo joan zen. Domekarako ekitaldi gehiago antolatu dogu. ■J. Guenetxea

Lehenago ikasle izandakoak orain irakasle eta guraso dira. Zikloak etekin barik barritzen dihardu. Lau hamarkadatan milaka ikasle hartu ditu Kurutziagak. Aro barri honetan, Urko Rodriguez da ikastolako zuzendaria.

ba moduan eratu zen. Herri ekimen bat izan zen, eta izaera horregaz jarraitzen dau gaur egun be. Zuzendaria izan arren, gurasoek erabakitzen dabe.

haur hezkuntza dagoen erai-kinera. Hortik hazkunde prozesu guztia martxan jarri zen. Frontoia eraiki, beste pisu bat be bai, eta ondoren azpiegitura barria.

ikastetxerik. Alde horretatik sasoi hartan ausartak izan ginen.

Ondorengo hazkunde demografikoari, barriz, hirugarren lerroagaz erantzun deutsazue.

2000. urtetik hazkunde demografikoa nabaritu genduen. Gurasoen eskaerari erantzuteko, hirugarren lerroaren aldeko apustua egin genduen. Proiektu hori martxan jarri ahal izateko, Ibilaldia antolatu genduen. Hiru mila metro koadroko eraikin barria egin dogu. Horregaz batera, haurtzaindegiko instalazioak hobetu doguz.

Zer ezaugarri nagusi daukaz Kurutziagako hezkuntza proiektuak?

Kalitateko zerbitzua eskainiz, euskal kultura bultzatzeko hel-

“Kalitateko hezkuntza zerbitzua eskainiz, euskal kultura bultzatzeko helburuari tinko eusten deutsagu ”

Gaur egungo azpiegiturara heldu arte, Kurutziaga ikastolak bide luzea egin dau.

Kurutziaga izena jarri eutsien Kurutziaga kaleko lokal baten hasi zirelako eskolak emoten. Hortik gaur egungo kokalekura etorri ziren. Lehenengo txalera, eta, gero, gaur egun

Haurtzaindegi zerbitzu aintzindari izan zenduen.

1996ko ikasturtean zerbitzu hori eskaintzen hasi ginen. Orokorrean, hezkuntza mailan beherakada demografikoari erantzun gura izan geuntsan. Gaur egun, ez dago zerbitzu hori eskaintzen ez dauen

40 urteko ibilbidea bete dozue.

Bai, agirien arabera, 1968ko otsailean ikastolari jarduteko baimen ofiziala emon eutsien. Dokumentu horreetan, gaur egun irakasle diharduen Isabel Astoreka agertzen da zuzendari ofizial legez.

Geroago, kooperatiba sortu zenduen.

1972an hainbat gurasoren artean Kurutziaga kooperati-

Abenduaren 14ko egitaraua

- 12:00etan, lasterketa herrikoia Santa Ana plazatik abiatuta.
- 13:30etik 15:00etara, txahal saiheskia erreta eskainiko dabe, Goienkaleko goiko partean.
- 17:30ean, Antzerkia Plate-ruean. 'Amama Pantxikaren altxor ezkutua!' (Ane Monna, Oskola eta Karramarroi)

gremioen koordinazioa

urutiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigo
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta Industri mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalazatuak eta abar

Goietia, 10 - 2.Esk. - ELORRIO
Tfn.: 682 09 91

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfn. 681 43 85

Hemen agertu gura badozu

deitu!

94 621 79 02

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA



Upategiko arduradunek jardun eben aurkezpenean. K. Aginako

Ardao barri bi aurkeztu ditu Launa upategiak

Teo's 2006 eta Launa Plus 2004 kaleratu ditue, Laguardiako upategian ondutakoak

Teo's 2006 eta Launa Plus 2004 ardao barriak aurkeztu ditu Launa upategiak, oraintsu, Plateruena kafe antzokian. Upategi barrian "kapritxo" landua eta 18 hilabetez haritzeko kupel barrietan ondu dauen %100 'tempranillo' barietateko ardao dogu Teo's 2006; Launa Plus 2004 krian-tza, barriz, %100 'tempranilloz' landu eta haritzeko upel barrietan ondua. Halantxe azaldu eben upategiko arduradunek Plateruena hurreratutako 53 lagunen aurrean. Ardao barrion aurkezpenean, urteko Oiz 2007a eta merkaturatzeko prest dagoen 2006ko Launa krian-tza dastatzeko aukera be eskaini eben.

Sei habeartetan zatituta, 2.000 metro koadroko lurrazpiko azalera hartzen dauen upategia eraiki barri dabe Laguardian, eta horren

barri emonez bideoa eskaini eben dastaketa hasi aurretik. Egoitza Berrizen daukan Launa upategiak urtean 290.000 botila ardao produzitzen ditu.

Ondoren, Mikel Garaizabal enologo eta somelier elorriarrak dastatutako ardao bakotxarengaineko nondik norakoak azaldu zituen. Antolatutako dastaketa gustura jarraitu eben parte hartu eben 50 bat lagunek, eta Plateruena prestatutako afari-merienda-gaz nahikoa ardao edateko aukera be izan eben. ■ A.Basauri

Plateruena kafe antzokian antolatutako aurkezpen eta dastaketan 53 lagunek parte hartu eben

Soldatak parekatzea, udalen garbitasunean diharduenen aldarria

Zornotzan elkarretaratzea deitu dau gaur ELAK; datorren astean, hiru greba egun

Elorrioren ez eze, Zornotzan, Gernikan eta Ondarroan be Udaletxe-ko garbitasuneko langileek soldaten parekotasuna eskatzen dihardueela denpora da. Halan gogoratu dau ELAK. Aldarri horri ertsiz, mobilizazioak deitu ditue.

Gaur, elkarretaratzea izango da Zornotzako Udaletxearen aurrean, 12:30ean. Datorren aste-

rako, barriz, hiru greba egun aurrekusi ditue. Urtebete da Udalak eta Impacto enpresak parekatze-ituna egin zeien negoziatzen hasi zirela. Oraingoz ez dabe erantzunik jaso. Udalaren eta Impacto enpresaren kontratupeko beharginak dagoz garbitasunean Zornotzan. ELAK dinonez, urtean 6.000 euroko aldea dago. ■ A.B.

Bizkaiko Bildotsa, kalitatearen sinonimo

Erraldek, artzainek, harategiek eta EHNEk igaz hasitako bidean aurrera egin dabe

Erralde hiltegiak, EHNE sindikatuak, Bizkaiko Artzainen Elkarteak eta 300 bat harategiek Bizkaiko Bildotsaren kanpaina abian jar-tzen dauen hitzarmena sinatu

Igaz legez, aurten be kanpainak harrera ona izatea itxaroten dabe sinatzaileek

dabe. 4.000 bildots jarriko ditue merkatuan, igaz baino mila gehiago. Era berean, baseritarrek igaz baino %4,2 gehiago jasoko dute.

Bildotsak baldintza guztiak betetzen baditu, kalitate mailarik altuena onartzen deusn etiketa bi jarriko deusiez; bestela, etiketa bakarra. Era berean, urtarrietik aurrera Bizkaiko Bildotsa ezagutzera emongo dabe Bizkaiko hainbat udalerritan. ■ J.D.

kolaborazioa



Enrike Hoz
CNT sindikatua

Langileen batzarra

Azaroaren amaieran Juancar laguna hurbildu zaigu, eskiatzailea bera, itsasoan yatean ibili ohi dena, eskuaz agurtzen duena eta Estatuaren buruzagitzaren okupatzen duena. Confefaskek bere 25. urterrena ospatzen zuen, eta, nola ez, gertaera entzutetsu horretara lanaren bandera-ontzi dena gonbidatu du; eginahalak egin behar izan dituen zutoihal izateko, guztien artean zintzoena eta maitekorrena dena, pertsona apala eta herritar xumeena.

Confefasken urtemugan behargin zerrenda bukaezina batu zen

Argi zegoen, Juancarrek derrigorrez egon behar zuela. Eta ez zen bakarrik Euskalduna jauregira jendeurreko ekitaldira joan, gainera, monarka bisitagatik egunkari batek emozioz beteriko kronikan agertzen zuenez, "erregeren jantziak (traje grisa eta gorbata fuksia marra zuriarekin) antzeztokiko morearekin elkartu/konbinatzen zuen". Izan ere, gure Juancar maiteak, iragarki ezagun batek dioen bezala, "edonon arrakasta izaten du". Hantxe zain egon ziren, bildutako jendetza artean, lehendakaria, Bizkaiko, Araba eta Gipuzkoako ahal-dun nagusiak, Confefaskeko presidentea, Patronalaren idazkari nagusia, CEOren arduradun nagusia, Telekomunikazioen estatu idazkaria, Bilboko alkatea, Iberdrolako Presidentea, BBK, Kutxa eta Vital Kutxaren presidentea, Petronorrek presidentea, Mondragon Korporazioaren presidentea, Circulo de Empresarios Vascos eta Tubacexeko arduradun nagusia, Euskalteleko presidentea, CAFeko buruzagiak, El Correoko kargu gorenak, Vocentoren lehendakariorde lehena, Euskadiko PNV, PP eta PSOEren buruzagiak eta UGT-Euskadikoa ere bai...

Laburbilduz: beharginen zerrenda bukaezina. Nork esan du langileak ez direla batzartzen euren gauzei buruz berba egiteko?

KURUTZIAGA IKASTOLA



Ohiko Batzar Nagusia, 2008ko abenduaren 17an:

19:00etan lehen deialdian eta 19:30ean bigarrenan,

Gaiak: Kuruziaga Ikastolako Jantokian

- 1- Akta onartzeko bazkide bi izendatzea.
- 2- Artezkaritzako kide berria onartzea.
- 3- 2007-2008 ikasturteko kudeaketaren azterketa eta, hala balegokio, onespina. Emaizten banaketa.
- 4- 2008-2009 ikasturteko Kudeaketa planaren azalpena.
- 5- Galderak eta erreguak.

Durangon, 2008ko abenduaren 2an. Lehendakaria

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK



Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

KULTURA >



Iazko poesia errezitaldian hartutako irudia. Judit Fernandez

POESIA > ERREZITALDIA

Lau poeta Errotan errezitatzen

Durungaldeko Vicente Moreno, Arrate Bañeras, Peru Magdalena eta Barbara Vera poetek, eurek sortutako zein beste batzuek idatzitako poemak errezitaldia egingo dute abenduaren 18an, 19:00etan hasita, Abadiñoeko Errota kultur etxean.

Orain zazpi urtetik egin izan duten eran, Abadiñoeko Moreno idazleak antolatu eta Abadiñoeko Udaleko Kultura Sailak babestutako errezitaldian batuko dira eskualdeko lau poetak. Aurrekoetan ez bezala, baina, udazkeneko iluntze batean egingo dute, Gabonen atariko arratsalde batean. Azken zazpi urteetako errezitaldi gehienak udaberri partean anto-

latu izan dituztela azaldu digu Morenok, "idatzi ere, udaberrian gehiago idazten dugulako askok". Ekitaldia udazken ingururako antolatzeko enkargua egin dio aurtun Udalak, eta horrenbestez, abenduaren 18rako egin dute errezitaldirako hitzordua.

Errota kultur etxeko emanaldian, *Hutsik* poema liburua aurkeztu berri duen Peru Magdalena, Vicente Moreno bera, Barbara Vera eta Arrate Bañeras arituko dira poemak irakurtzen. Horren aurretik, Baqué kafe-dastaketa izango da Abadiñoeko kultur etxeko atarira gerturatzen diren herri-arrantzat, errezitaldiko entzule izango direnentzat. ■ I.E.

12 Bizkaiko bertsolari finalistak

Kristina Mardarasek idatzitako kronika jaso dugu joan zen asteburuan Getxon jokatu zen azken finalaurrekoaren eta finalaren arteko alean



13 Azokako nobedade biren egile

Durango Azokan aurkezturiko nobedadeetako bik daramate Nikolas Zimarro idazle abadiñararen sinadura; olerki liburu bat eta nobela bat dira

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

Iturriaga eta Elortza dira Durangaldeko finalistak

Finalerako bidean azken geltokia izan zen Santa Eugenia plazako abenduaren 7ko saioa. Xabi Paya egungo txapeliduna, Etxahun Lekue txapeldunordea, Gorka Ostolaza, Eñaut Intxaurrea, Igor Elortza eta Unai Iturriaga aritu ziren bertan. Berezia izan zen saioa, bertan jakin zelako zer bertsolari izango diren Bizkaiko bertsolarien BECeko finalean.

Unai Iturriagak batu zuen Getxoko saioan puntuaziorik altuena: 575 puntu t'erdia

575 puntu eta erdi lortu zituen Iturriagak, eta finalerako zuzeneko txartela. Finalean egoteko aukera izango dute Igor Elortza, Xabi Paya, Iratxe Ibarra, Fredi Paya, Arkaitz Estiballes eta Onintza Enbeita bertsolariak ere.

Urriaren 12an Mendexan izan zen 2008ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako lehenengo saioa. Eneko Abasolo "Abarkas" izan zen bertan garaile. Guztira, Durangaldeko herrietako zortzi bertsolari aritu dira Bizkaiko txapelketan: Uruburu, Sarriugarte, Salaberria, Lazkano, Iturriaga, Elortza, Amuriza eta Abasolo.

Eneko Abasolo Mendexan, Igor Elortza Zeanurin, Miren Amuriza Larrabetzun eta Unai Iturriaga Zaldibarren garaile atera ziren kanporaketetan. Orain, duela bi urteko txapelketan parte hartu ez eta aurten bueltan diren durangar biak, Unai Iturriaga eta Igor Elortza, izango dira finalean Durangaldeko ordezkariak.

Abenduaren 20an Barakaldoko finalean zortzi bertsolariok egingo duten lana ikusteko datorren eguna arte erosi daitezke sarrerak, bertsolari elkartearen www.botasarean.biz webgunean edo BBKren kutxazainetan.



UNAI ITURRIAGA

•Puntuak: 575,5
•Herria: Durango
•Adina: 34 urte



IGOR ELORTZA

•Puntuak: 563,5
•Herria: Durango
•Adina: 33 urte



XABI PAYA

•Puntuak: 551
•Herria: Algorta
•Adina: 26 urte



IRATXE IBARRA

•Puntuak: 540
•Herria: Markina
•Adina: 34 urte



ARKAITZ ESTIBALLES

•Puntuak: 537,5
•Herria: Galdakao
•Adina: 31 urte



ETXAHUN LEKUE

•Puntuak: 529
•Herria: Larrabetzu
•Adina: 28 urte



FREDI PAYA

•Puntuak: 524,5
•Herria: Algorta
•Adina: 27 urte



ONINTZA ENBEITA

•Puntuak: 514
•Herria: Muxika
•Adina: 29 urte

GEURE DURANGALDEA



Angel Zelaieta Idazlea

Meza euskaraz

Karmelo Etxenagusia Francisco Ballester Viurekin topo egin eban Derioko Seminarioan, 60ko hamarkadan. Francisco Ballester Viu, euskaraz meza emoten lehenengoa izan zen, nahiz eta oraindik ez zegoen horretarako baimenik Mendebaldeko elizetan. Viu, baina, Ekialdeko Elizaren *Melkitar Ritokoa* zen; hots, *Bizantiar Ritokoa*, baina arabiar hizkuntza diharduen horretarikoa. Hau dela eta, baeukan ahalmenik euskaraz jarduteko, meza emote orduan.

Viu, Gurgide Gotzainak kanpotik ekarria, latin eta grekerazale amorratua, Derioko seminarioan zen irakasle, eta 1959an meza osoa euskaraz ipini zeion eskatu eutsan Karmelo Etxenagusia irakasle-kideari. *Lagunarteko meza orienteko kristiñauen eraz* izenburuarekin argitaratu be mon eban, bizkaieraz, A.C. Omaetxebarriak zuzentzen eban Bilboko Delegación Misional Diocesana zeritzonak. Gurgide Gotzainaren baime nazekarren, zinoela: "*Flaviobrigae, 18januarii 1959, Paulus Episcopus Flaviobrigae*".

Aldi haretan, Jose Antonio Retolaza zegoen abade Arrazolan eta berari otu jakon meza horretan emotea. Baita eskatu be Viuri eta honek baietz erantzun. Edozein hizkuntza menderatzeko berebiziko erraztasuna zeukan, eta meza euskaraz irakurri eta zati batzuk buruz ikasteko ez jakon gatz egin, beti be Karmeloren gidaritzapean.

Herri osoak parte hartu eban. Tartean, Karmelo Etxenagusia eta Juan Maria Uriarte irakasle kideak, eta Klaudio Gallastegi San Antongo erretorea, besteak beste. (Bada dinoenik, Arrazolan baino lehen be emon eba euskaraz meza, hala nola Mallabiko Gerean).

Viu 2006an hil zen Madrilen: Gotzainen bilerara joan be Karmelo, eta bisitan joan jakon hil aurretioan. Orain Karmelo bera joan jaku: *Sit tibi terra levis!*

kronika

Kristina Mardaras

Azaroaren 30ean jaitsi ziren txapelketako trenetik Abarkas eta Miren. Saio erregularra. Gustuko bertso asko eta urduritasuna be bai. Miren, zortziko txikian. Askok gustatu jatan Joseba Artzagaz. hamarrek txikian be ondo. Kartzelan, barriz, ederto. Biba zu! Enekok ez zeukan bere egunik onena, erdi gaixorik zegoen eta... Hurrengoan beharko dau.

Joan den domekan, barriz, Unai eta Igor primeran ibili ziren. Saioa finalaren parekoa. Unai, Igor, Xabi Paya eta Etxahun finalera pasatu baziren be, Gorka Ostolaza "Potxis"-

ek eta Eñaut Intxaurregak ez eben eskas egin. Baina onartuko deustazue Erromoko saioan hiru maila bazegozela. Agurrean Eñautek argi itzi eban Igor, Iturriaga eta Payari zuzendutakoaz. Minifinala deitu eutsan Ostolazak saioari, dinosauroak eta hasibarrak aipatu aurretik, eta Mikel Laboa zendu barria be gogoratu eben behin baino gehiagotan.

Esateko moduak, gauza bakotxari bere izenetik deitzeak, ironiak, insinuazioak... azaldu ziren saioa hasteagaz bat. Zortziko nagusian Eñaut eta Unai "edadeko biko-

teak" zuku atera eutsien "barriro ohe berean lo egiteari". Egon arren be "mahaspasatuta eta zar", zinotsan Unai, "gozau egin geinke alkar". Eñauten geldi egoteko abisuei "kasueginez" beretik eroan eban durangarrak konklusinoraino: "Azertau Pello Zabala/aurten negua luzea eta hotzagoa joango dala". Distantzia larregia, denboran zein espazioan, ez da ona

maitasuna bero mantentzeko, noizik behin egurra bota beharko leiako.

Zortziko txikiko freskoa eskaini euskuen Unai eta Xabik, turismoa egitera joan eta Venezian belaunetarainoko uretan. Ateraldi onak: "Ikusirik uraren gorako asmoallaster egingo dogu submarinismoa", Xabik. "Gorputza itsasoaren jitera zuk lagal/igual por tu zarrean agertuko gara" Unai. Hamarreko txikian eta kartzelakoan bikain egin eban.

Igorri buruz, barriz, beste hainbeste esan leiteke. Zortziko nagusian Ostolazagaz gustura eta animoso ikusi neban; indartsu, esateko modu erakargarriekin. Etxea aspaldi itzi eta bueltan datorren 40 urteko semea zen: "neure semeak mantentzeko/neu be zuengana nator" zinotsan aitari, hipoteka pagatu ezinik zebilela azaldu. Aitaren ezkortasunari "inoiz damutzen baldin bazu/ondoko hostalean nago" erantzunez.

Bikain Olentzeroren kasuan Eñautekin zortziko txikian. Arrazoi onak eta ondo gartuta bata bestearen atzetik, eta hamarrek txikian bardin. Kartzelako lana itzel. Doinua despistagarria zela iruditu jatan, baina Laboarena zen eta ...



Baserriaren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa 48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187 Faxa: 946 205 194

LITERATURA > OLERKIGINTZA

“Intuizinoz, umil, eta apaltasun osoz idatzi ditut olerkiok”

Barikuan aurkeztu dau euskarazko lehenengo olerki liburua Nicolas Zimarro Abadiñoko idazleak Durangoko Azokan. Gure baitara begiratzeko gonbita da.

Zelan joan zen 'Maitasunez blai. Preso baten laztan galduak' eta '¿Por qué lloran las niñas?' liburuen Durangoko Azokako aurkezpena?

Ondo... Bertan egon nintzen, eta 13:00ak arte liburu sinaketa be bertan izan zen. Azokan liburu aurkezten laugarrenez izan naz 43. edizino honetan. Ikasleendako eguna izan zen, eta ume ugari ibili zen Azokan. Baina nire liburuk ez, beste interes batzuk zitueen, liburuetako bat bereziki euren interesekoa izan zeitekeen arren.

“Nerabezaroan izaten den ametsezko munduaren galera kontatzen dot nobelan”

Ikasleendako apropos?

¿Por qué lloran las niñas? nobelako protagonistak nerabeak dira, eta nobela luzeagaz izan dodan lehenengo esperientzia izan da. Ongizate gizarte honetan, ondasun materialei jago-kenez guztia daukien nerabeek bizi ditueen barne prozesuak -inkomunikazinoa, maitasun eza- aztertu gura izan ditut. Neska gazteek bizi daben bakardadea eta euren ametsen galera kontatzen dot nobelan; haurtzaroan bizitako fantasiako munduaren bukaera.

Nerabeen mundu horregaz hartu-emonik izan dozu?

Makina bat urtean Batxilergoan eta unibertsitatean irakasle izana naz, eta 15 urte egin barri dituen alaba daukat. Arreta apur bat ipinita euren jarrera eta psikologia behatu izan ditut sarritan. Halan be, pertsonak uste dogun baino elkarren antzekoagoak gara; zirkunstantziak eta esperientzia indibidualak bereizten gaitu, baina esentziaz elkarren antz handia dogu. Oso, oso, oso alegorikoa da liburua, eta, tragedia oso handia kontatzen den eta jentea hiltzen den arren, ez da bape biolentoa. Ez da denpora-pasarako liburu. Ahalegin erreflexibo bat eskatzen deusat irakurleari.

Olerki liburua be argitaratu dozu, zertan ardaztuta?

Aurrekoarengandik guztiz ezberdina den errejistroan eginna dago *Maitasunez blai. Preso baten laztan galduak* olerki liburua. Bakotxak norbere barrura begiratzeko proposamen literarioa da, hamairu olerki osatzen dabena. Bakotxak, bakarka hartuta, bere esanahia dauka, baina orokorrean kontatzen den istorioa, maitasun esperientzia baten prozesua da. Denakartzea bateko hormen barruan gertatzen da. Egoera hori bizi dauen pertsonaren azalean ipini, eta hori era estetikoan kontatzea da egindako saiakera. Espetxea, metafora bat da: espetxea geu gara, bakotxa.



Nobela gazteleraz eta olerki liburua euskaraz kaleratu barri ditu Nicolas Zimarrok.

Erabaki kontzientea izan da nobela gazteleraz eta olerki liburua euskaraz idaztea?

Guztiz kontzientea. Euskarazko dodan begirunearen ondorio be bada; ama hizkuntza dodan arren, euskal formazio intelektualik ez dodalako izan, ez dot orain arte euskaraz argitaratu. Asko ikasi eta irakurri ostean emon dot pausoa. Intuizinoz, umil, eta apaltasun osoz idatzi ditut olerkiok.

“Asko ikasi eta beste hainbeste irakurrita gero emon dot euskaraz argitaratzeko pausoa”

Erreflexino horreek guztiak idatzi eta gero egiten dozuz?

Argi izaten dot zer gura dodan kontatu. Zer mezu helarazo gura dodan, edo zer erreflexino sorra-razi gura ditudan aurrez pentsatzen dot beti.

Zer dozu orain esku artean?

Batetik, *Plectometro* titulua izango dauen liburua prestatzen dihardut, poesiaren inguruko erreflexinoak hartuko dituen; poesia zer den aztertzeke, saikera edo artikulu bat idatzi behar-ean, poemario bat osatuko dot. Bestetik, orain urtebete inguru idatzitako narrazio laburrak berrikusten be banabil. *La soledad cuelga el gancho de la puerta* izenburua izango dau: arrazoi bat edo bestegaitik, amore emon daben pertsonen istorioak. Beste proiektua,

orain sei urtetik esku artean darabildana da: 50 nobela klasiko zein garaikideren inguruko kritika literarioa.

Argentinan argitaratu izan dozu hainbat lan...

Liburu bi argitaratu nituen, eta sari literario bi jaso ditut han. Hegoameriketako hainbat idazle-gez sortu genduen www.poesiamaria.com gunea be. Han dagoz nire merkatua eta hartu-emonik gehienak.

“Oso alegorikoa da liburua, eta tragedia oso handia kontatu arren, ez da bape biolentoa”

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

ABENDUAK 14 17:30ean
ANE MONNA, OSKOLA TA KARRAMARROI
Ama Pantxikaren altxor ezkutua
UMEENTZAT ANTZERKIA. Sarrera doan.

ABENDUAK 18 22:00etan
THE MARZIPAN MAN
KONTZERTUA. Sarrera Doan.

ABENDUAK 19 22:00etan
HESIAN + TRAPATONI CIRCUS BAND
KONTZERTUA. Sarrera: 6 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

SEXO GRATIS

Kunka Antzerki Taldea (Gasteiz)

Abenduak 14 igandea 20:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

Tf.: 94 601 07 76 Artekale, 14 Durango

DANBAKA >

Folk, reggae eta rocketik funk-pop-rock koktelerraino, punk-rockaren amorruan

Danbakako bosgarren kontzertuan Debabarreneko eta Debagoieneko bina talde igoko dira Espaloiko agertokira

Iker Barandiaran > Arrasate

Danbaka III. Musika Lehiaketako azken txanpa geroago eta gertuago dago. Bi kontzertu besterik ez dira falta lehenengo faseari bukaera emateko. Hortaz, laster jakingo dugu zeintzuk izango diren finalera joango diren taldeak. Batzuek faboritoak izango dituzte dagoeneko, baina, guztiak entzun eta ikusi arte ezin da dena esan. Izan ere, ezusteko asko ematen dira Danbakako kontzertuetan, eta taldeak uste baino prestatuago datoz lehiaketara.

Gaur, barikua, folk-rockak hasiko du gaua. Are gehiago, Ermua-Eibartik datorren Flipin Folk taldean Ni_Neu proiektuko Aitor Sologaitoa musikari dabil, besteak beste.

ABY-KEMEKO BATERIA OHIA

Bigarrena Oñati eta Donostia artean osatutako Rock Privado izango da. Pop-rocka egiten dute. Horien ondoren, Mutrikutik datorren The Wet Band taldeak funkya eta rock gogorra landuko ditu melodia itsas-korrekin.

Eta gaua bukatzeko, Aby-Kem taldeko bateria-jotzaile ohiaren talde berria izango dugu Elgetako Espaloian: Turboshit. Metaletik zeharo aldentuta, amorru handiko punk-rocka egiten dute.



FLIPIN FOLK | Ermua-Eibar

Folka eta rocka batzen dituen talde hau 2001ean sortu zuten Eibarko eta Ermuko kideek. Hasieran Galizia eta Irlandako folka rockarekin uztartzen zuten, baina 2005ean egin zuten aldaketatik gerora estilo gehiago lantzen dituzte: rocka, reggaea, ska eta beste. Orduetik, gainera, taldea honako lagunek osatzen dute: Iñaki, Jorge, Aitor, Paulino eta Txema. Ohiko rock instrumentuez gainera (gitarra, bateria, baxua), akordeoia, mandolina, gaita eta txirula ere erabiltzen dituzte.



ROCK PRIVADO | Oñati-Donostia

Rock Privadok hanka bat Donostian dauka eta beste bat Oñatin, Andoni bateria-jotzailea hangoa da-eta. Gaztelaraz abestutako pop-rocka egiten dute ñabardura askorekin, eta denbora laburrean izen geroago eta handiagoa dute. Donostiako XVII. Pop-Rock lehiaketako epaimahai gaztearen saria jaso zuten, eta 2008ko Madrilgo Audiciones lehiaketarako sailkatu ziren. *En todo este tiempo* diskoa autoekoitzi berri dute Germanek, Juanekek, Rociok, Iñakik, Dafnisek eta Andonik.



THE WET BAND | Mutriku

The Wet Band taldea Mutrikun jaio zen 2007. urtean, eta beste talde askoren moduan, hastapenetan inoren kantuak interpretatzen hasi ziren: bluesa, punka, soula, rocka, hard-rocka eta beste. Gerora, euren kantak egiteari ekin zioten, eta gustuko dituzten musika estiloak gehiago finkatu zituzten. Hala nola, gaur egun, rock, funk eta pop-rocka egiten dute, tarteka stoner ukituak ere batzen badizkiote ere. Taldea Ainarak, Endiakak, Aitzolek eta Iñigok osatzen dute.



TURBOSHIT | Bergara

Begarako hirukote honek aurten lehenengo aldiz parte hartuko du Danbaka lehiaketan, baina taldeko abeslari eta gitarra-jotzailea birritan izan da Espaloiko agertokian, eta behin, gainera, lehiaketa irabazi zuen Aby-Kem taldearekin. Iñigo Ibarzabalek, orain arte bateria izan bada ere, oraingoan gitarra eta mikrofonoa hartu ditu, Mikel Gallastegi eta Mikel Martinezekin batera Turboshit punk-rock taldea osatzeko. Hirurak eskarmentudun musikariak dira, eta ondo pasatzea gura dute.

KONTZERTUA

Gaur, barikua. 22:30

Elgetako Espaloia

5 euro (Gazteketxa, 3 euro)

> Flipping Folk

> Rock Privado

> The Wet Band

> Turboshit

www.danbaka.com

DANBAKA))))

III. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

BABESLE NAGUSIA

LAGUNTZAILEA

HEDABIDE LAGUNTZAILEA

ANTOLATZAILEA

GEHIGARRIA[>]

anboto | 2008ko abenduaren 12a, barikua



189€

499€

99€

zurekin ABADIÑO

EROSKI

Gabonetako kanpaina berezia

15,6"

Windows Vista

Intel

PlayStation 2

*Eztingo deutzazu
gogoari eutsi!*



kontsultatu baldintzak denda.

2X1 TELEPIZZA®

Probatu gure pizza gainerrea
asteko egun guzietan. (lokalean)

Askatasun etorbidea, 25. Tel.: 94 621 81 86



Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - 48200 Durango
94 620 18 93 - Faxa: 94 681 64 03

UNDARRI BIKE
Bizikleten salmenta eta konponketa.



Lehen markak:
Commençal,
Orbea,...
eta beste
batzuk.

arropa • oinetakoak • gurpilak • ordezko piezak
osagarriak • janaria • ...

Bidebarrieta, 5 - bajo
48215 IURRETA
undarribike@undarribike.com

94 681 78 08
www.undarribike.com

HAUR
BIZIKLETA
UGARI
AUKERAN!



Folder

XOK
xop

Zumalakarregi, 10
48200 • DURANGO (Bizkaia)
Tlf.: 94 621 73 42 • Fax: 94 621 73 64
durango@folder.es • www.folder.es

Hello Kitty



HITZ
Liburu
denda

Artekale, 14 • DURANGO
Tel.: 94 681 07 76

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua



Andra Mari kalea, 9 • DURANGO Tel.: 94 681 50 17

*Gabonetan,
oparitu
maite dituzunei
edertasun-
produktuak
eta
zerbitzuak.*

Estetika Zentroa
Ana Camarero

*Zeure
naurrira
agindako
opari
eta txartelak
prestatzen
ditugu.*

Goienkale, 16 - 1. esk.
Tel.: 94 681 73 80 DURANGO




ERITZIA[>]

kolaborazioa

Gutunak @



Marisa Barrena

AHT! Kultur ondarearen aurkako eraso

Abiadura Handiko Trena Euskal Herrian inoiz egin den azpiegitarik txikitzaileena, garestiena eta kaltegarriena da. Urteak daramatzagu, oztopoak gaindituz, munstro horren aurkako arrazoiak gizartearen zabaltzen, hainbat ikuspuntutatik: ekonomia, gizarte, ingurumena... Horiek dira, beharbada, orain arte agerian jarri ditugun arrazoiak, baina gutxitan aipatzen den beste batekin egin dugu topo Durangaldean azkenaldian: kultur ondarea.

Zalantza gutxi utzi digute gure agintariek euren enpresen politikoak beteko dituen negozioa egiteko dauzkaten mugekin inguruan. Argi dugu dirua usaintzen dutenean ez dutela ezer errespetatzen, eta beste behin ere berretsi digute normalean izan ohi duten jarrera. Euskal Herri osoan hainbat baserri bota gura dituzte AHTa eraikitzeke, eta Durangaldean, zehazki, hamar bat: batzuk zuzenean proiektuan hala agertzen delako, eta beste batzuk zeharka, jabeen beste aukerarik utziko ez dietelako. Guztiak ehunka urtekoak.

Horietatik, Abadiño Mendilibar Erdikoak dauzka oraintxe bertan lanak gertuen (metro gutxira). Baserri horretan familia berbera bizi izan da belaunaldiz belaunaldi -XIX. mendearen amaieratik, gutxienez- eta orain, betiko etxetik bota behar dute han bizi den bikote adinekoa. Pertsona horiei zor diegun errespetua dela eta ez dugu berbarik egingo azken urteotan jasaten ari diren egoeraz, baina pentsatzeko da ez dela batere gozoa; ondo baitakigu, gainera, zelako informazio eskasa eman dieten orain arte modu ofizialean. Mendilibar Erdikoa baserria 1660 inguruan eraiki zuten gutxi gorabehera. Jatorrizko egitura ia osorik dauka oraindik, jatorrizko zutoinak bertan baitaude ganbaratik kortaraino. Aurreko horma zarpiatuta dago orain, baina horren azpian jatorrizko itxura igartzen zaio. Alboetako batean ikus daitekeenez, baserriaren horman, jatorriz, adobezko adreiluak zeuden (eta batzuk bertan daude orain ere), eta Durangaldean oso baserri gutxitan gorde dira adobezko adreiluak gaur egun arte. 350 urte inguruko historia duen lekuan, urte batzuk barru zementuzko munstro bat egongo da guk saihesten ez badugu; izan ere, baserriko sukaldea dagoen lekuan gutxi gorabehera, AHTaren biadukturako zutabe bat eraiki gura dute.

Beharbada, gure agintari burutsuek, guk baino gehiago jakin ohi dutenez, esango digute Mendilibar Erdikoa eta AHTak botako dituen beste baserriak ez daudela ondare gisa katalogatuta. Ados, baina katalogo horietatik kanpo, orduan, ez dago kultur aberastasunik? Duela hainbat hilabete banatu zuten propaganda orri batean Y grekoaren ibilbidea ageri zen EAEko Parke Naturalen artean igarotzen, eta AHTak ez dituela Parkeak ukituko zioten... Oso ondo, baina parke horietatik kanpo ez dago mendirik ala?

Baserriak, ordea, ez dira izango kaltetutako ondare bakarra. Abadiño Mendiola auzoan, Mendilibar Erdikoa baserriaren ondoan, uztailean hasi zituzten AHTaren lanak. Bertan egin zuten lehenengo gauzetako bat zuhaitzak botatzea izan zen, eta inongo arazorik gabe bota zituzten bertan zeuden haritz zaharrak duela urte gutxi landatutako pinu gazteekin batera. Nagusi gure inguruko mendietan. Lanak hasi zituzten lursailaren ondo-ondoan, gainera, Mendiolak galtzada ere badago. Galtzada hori, gaur egun ezagutzen dugun moduan, XIX. mendearen erdialdetik dago, baina berez zaharragoa da, lehenagoko galtzada baten konponketa baita. Oraindik ez diote kalterik egin, baina obrak bertan daudela ikusita, arduratzeko moduan gaude...

Harrigarria da zelan ausartzen diren gure politikari eta teknikari jakintsuak historia horrela iraintzen, gure kulturari barre egiten, gure ondare kolektiboa horrela mespretxatzen. Miren Azka-

rate Gasteizko Gobernuak kultur sailburuak ere ez du ezer esango gure ondare kulturala horrela izorratzen dutela ikusita? Abadiño Udaleko Luis Miguel Kanalaetxebarria kultura zinegotziari ere ez diogu horren inguruko ezer entzun orain arte. Durangaldean, gainera, badugu zorionez aspaldi-aspalditik eskualdearen kulturaz arduratzen den elkarte bat, erakundeetatik kanpoko, Euskal Herri osoan ezaguna eta oso errespetatua. Etsipen handiz diogu, ordea, elkarte horrek, tamalez, orain arte ez duela ezer egin nahi izan Mendilibar Erdikoa baserriaren alde (agian erakundeen errepresalien beldurrez?).

Zeren zain daude horiek guztiak zer edo zer egiteko? Zeren zain gaude beste guztiok? Egunen batean gure baserriak eta baserriarren bizimodua hiri handietako museoetan ikustera kondenatuta gaude, baina bost axola zaigula ematen du. Gure esku dago! Zure esku dago!

Durangoko AHT Gelditu! Elkarlana

Kutxen bat (des)egitea

Bategite proiektua gauzatuz gero, estatu mailan ondare garbiaren rankinean 3. postuan kokaturiko aurrezki kutxa berria sortuko litzateke. Kutxa berriak beste merkatu eta bezero batzuegan heldzea ahalbidetuko luke, eta eskainiko liratekeen produktua eta zerbitzu sorta zabalduko lirateke. Erakunde txikiek geroago eta arazo gehiago dituzte aldakorrak diren eskakizunetara egokitzeko, eta modu honetan lehiakorrak izango litzateke. Bizi dugun testuinguru ekonomikoan beste tresna potentzial bat litzateke Euskal Herri-tarrei laguntzeko.

Gure baietza kritikoa izan da. Aukera paregabea galdu dugu bategite hori parte-hartze handiagoz egin eta kutxa publiko baten izaera indartzeko. Eztatanda soziala falta izan da. Obra sozialera irabazien %50 bideratzea proposatu dugu bat egiteko proiektuan proposatzen zen %30etik haratago. Baina kritika horiek guztiak kutxa lehiakor berri batera eramatea aukera onena zela aurreikusitua genuen.

Hego Euskal Herriko, dauden lau aurrezki kutxen bat egitea zen gure proiektu ideala, baina gure ezezko botoarekin ezin genituen zigortu bide horretan hasten ziren kuxak. Baina, orainoan ere, alderdikeri politikoak herritarren interesen gainetik jarri dira.

Alderdi "sozialistaren" jarrera harrigarria izan da, inongo argudio ekonomikorik azaldu barik, bat egite proiektua hauteskundeetarako lehenengo round bihurtu dute, euren indar guztiak jarritz proiektua zapuzteko. Gainera, hurrengo egunean azaldu zuten, martxotik aurrera berriro jarriko litzateke proiektua martxan. Jakina, EAEko hauteskundeak iragarrita daude martxoan, eta euren ustez, gobernatzetik oso hurbil geratuko dira. Beraz, euren kudeaketa ereduaren berri ematen ari dira: "Egidazu lekua zure aulkian, zure ondoan jarriko naiz eta pastela bion artean banatuko dugu".

Dani Maeztu, BBK-ko asanblada orokorrean Durangoko udal ordezkaria

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zerbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Ikusezinen Azoka

Euri eta lanbropean joan jaku 43. zita. Eskerrak, aterpe ederra izan dogun, behinik behin. Lehenengo egunean Amurizaren *Orain ezin naiz hil* liburua erosteko asmoz hurreratu nintzan, baina ezin izan neban aurkitu, ez zegoela Azokan esan eusten. Holakorik! Ikusezinen Azoka ete da ba hau?

Horretan, hara non, Amuriza bera aurrez aurrez: "Interneten jarri jonat. Hiru mila sarreratik gora ei dagoz nire blogean". Irakurle! ez dakizula zer den bloga? Sentitzen dot, benetan, baina Torreburun jaiotako bertsolari handiaren liburua, oraingoz, Interneten baino ez dago. "Ez ete dau Azoka eder honetan Amurizak lekutxo bat merezi?", Pentsatu neban neure kautan.

Aurrera jarraitu eta, azokan Sarri be ezin izan neban aurkitu. Bera ete da Azokako gizon ikusezina? Eskerrak, zintzo-zintzo bere *Gau ilunekoak* eta *Munduko zazpi herrialdeko ipuinak* lan txukunak bialdu deuskuzen, behintzat. Toti bai, Toti hantxe, inbisibilitate arazo barik, jo eta ke bere liburua sinatu eta sinatu, jende ilara itzela bere dedikatorien zain zeukala. Haren *Otalorea* liburuaren itzultzailea, ostera, enpresaren izenak ikusezin bihurtu dau. Lastima!

Halan be, hori ez da izan dena, aurren batzuentzat ikusezina izan den emakumea be izan dogu Durangoko Azokan. Bai, hantxe izan da, batz jantzita, plastikozko poltsa beltza esku batean eta bestean erratza zeukala. Zertan ibili den? Ba, Azokara joaten den askok eta askok lurrera botatzen dituen paper eta ingurumariak batzen.

Zorionak Gerediagako arduradunei, besteak beste, garbiketa arloan Azoka modernoaren eredu jarraitze-gaitik. Ea datorren urtean, kartel kontuan be berdintasunari eta haize barrie tartetxo bat egiten deutsegun.



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2008ko abenduaren 12a - 8. urtea - 312 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez.,

Itsaso Esteban, Markel Onandia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.

PROMOZIOA

BAUTISTA ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA



PROMOZIOKO PREZIOA
999 €

3+2 PLAZAKO BIKOA EROSIZ GERO
GABONETAKO OTZARA OPARI

3+2 plazako multzo modernoa beige koloreko mikrofibrarekin egina



SOFA HAU EROSIZ GERO
GABONETAKO OTZARA OPARI

PROMOZIOKO PREZIOA
1.190 €

3 plazako sofa, chaiselongue moduluarekin, larru zurian edo moka kolorekoan aukeran

Larru beltzeko relax besaulkia
Goratzeko motoredun sistema
automatikoa

Larruzko relax besaulki modernoa.
Zangoak egokitzekoak dakar.
Birikaria. Beltza, gorria eta marfila.

Larruzko relax besaulki modernoa.
Zangoak egokitzekoak dakar.
Birikaria. Beltza, gorria eta beigea.

Larruzko relax besaulki modernoa.
Zangoak egokitzekoak dakar. Birakaria eta
etzangarria. Beltza, zuria eta moka.



PROMOZIOKO PREZIOA
570 €



PROMOZIOKO PREZIOA
285 €



PROMOZIOKO PREZIOA
295 €



PROMOZIOKO PREZIOA
355 €

Santa Cruz industrialdea, 1 zk. LAUDIO 94 672 77 00 (A-8 autopistako 3 irteera, Laudio-Orozko)

Urbite industrialdea, 2. pabiloia, 4. partzela ABADIÑO 94 681 35 19 (Abadiño Eroski merkataritza-gunean)

BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN

AGENDA >

> ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Abenduaren 12an eta 14an

SEXUA, UMOREZ ZIPRIZTINDUTA

Gasteizko Kunka antzerki taldeak komedia "beroa" dakar, asteburuan, Zornotza eta Durangora. Sexua eta bere inguruko pertzepzio eta jarrerak ditu ardatz 'Sexo gratis' antzezlanak. Hori bai, umorez zipriztinduta. Tabu eta konplexurik barik jardungo dabe sexuaz oholtza gainean: "Umore ona jente gaiztoarentzat!". Gaur ditugu Zornotza aretoa; domekan, San Agustin kulturgunean.

ANTZERKIA

BERRIZ

>> 'Zer duzu, negarrez, Marie?' (Marie de Jongh), abenduaren 12an, 17:30ean, Kultur Etxean.

>> 'Grönholm Metodoa' (Txalo produkzioak), abenduaren 19an, 22:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

>> 'Sexo gratis' (Kunka antzerki taldea), abenduaren 14an, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

>> Umeendako antzerkia: 'Amama Pantxikaren altxor ezkutua' (Ane Monna, Oskola eta Karramarroi), abenduaren 14an, 17:30ean, Plateruena kafe antzokian. Berbaro elkarteak eta Kurutzia ikastolak eratu.



ELORRIO

>> Dantza-antzerkia: 'Papiro... Flexia' (Circle of Trust & Logela Multimedia), abenduaren 19an, 22:00etan, Arriola antzokian.

ERMUA

>> 'En ocasiones veo armarios' (Las Grotosques), abenduaren 12an, 22:15ean, Lobiano kulturgunean.

>> Haurrendako antzerkia: 'Cyrano' (Gorakada), abenduaren 13an, 17:00etan, Lobiano kulturgunean. Hilaren 20an, 'Lorategian' (Paraiso Teatro).

>> Haurrendako antzerkia: 'Ametsen museoa' (Eidabe), abenduaren 27an, 17:00etan, Lobiano kulturgunean. Hilaren 30ean, 'Adarkabar urdina' (Bihar).

OTXANDIO

>> 'Euskara senci-lloaren manifestoa' (Bikoteatro), abenduaren 19an,



19:30ean, Gaztetxean. Euskara Batzordeak eta Gaztetxeak eratu.

ZORNOTZA

>> 'Sexo gratis' (Kunka), abenduaren 12an, 21:00etan, Zornotza aretoa. Titereak: 'Inmundo hesi-puskatzailea' (La enana naranja), abenduaren 20an, 18:00etan.

BERBALDIA

DURANGO

>> 'Las necesidades del niño y la niña a medida que crece' (La liga de la leche de Euskadi), hilaren 22an, 18:00etan, Pinondo Etxean.

ELORRIO

>> 'Zientzia, baloreak, sorkuntza eta hezkuntza' (Pedro Miguel Etxenike), abenduaren 16an, 19:00etan, Arriolan. Txintxirri ikastolak eratu 40. urteurrena dela-eta.



ZORNOTZA

>> 'Ahoz kotasuna' (Andoni Egaña), gaur, 19:00etan, Zelaieta zentroan

BERTSOAK

DURANGO

>> Urteko azken saioa: M. Lujanbio, S. Colina, X. Paya, U. Iturriaga eta Igor Elortza. Abenduaren 31n, 22:00etan, Plateruenean.

BESTEAK

OTXANDIO

>> Nekazaritza Azoka, abenduaren 14an, 10:00etan hasita, plazan.

ZALDIBAR

>> Neguko Azoka, abenduaren 14an, 11:00etatik 15:30era, Euskal Herria kalean. Askotariko produktuak izango dira 29 erakustokitan.

ZORNOTZA

>> Zex: Sexu aholkularitza, abenduaren 12an, 17:00etatik 19:00etara, Gazteen Informazio Bulegoan. Zuk zeuk: drogomenpekotasun aholkularitza, hilaren 19an, 18:00etatik 19:00etara.

>> Gazte diskoteka, abenduaren 13an, 20:00etatik 23:00etara, Zelaieta zentroan. Gauero: Gaztetxeondako gaueko aisialdi programa, 19an eta 20an, 20:00etatik 23:00etara.

DANTZA

DURANGO

>> Dantza eta 'cante'-a, abenduaren 13an, San Agustin kulturgunean. Andaluziako zentroak antolatuta.

>> Durangon Folk, abenduaren 20an, 19:30ean, Plateruenean. Kriskitin dantza taldeak eratu.

>> Dantzaldia: Trio Hakker Orkestra, abenduaren 27an, 22:00etan, Plateruenean. Hirugarren adinekoendako gabonetako dantzaldia.

DEIAK

BERRIZ

>> 'Gizonduz' programaren informazio eta sinadura bilketa, Udaleko erregistroan, Kultur Etxean eta Kirolegian. Urtea amaitu bitartean.

DURANGO

>> Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

ERAKUSKETA

DURANGO

>> 'Siempre de noche y por carreteras secundarias' (Alberto Gracia "Eskerri"). Abenduaren 31ra bitartean, Arte eta Historia Museoa.



>> Jesus Mari Agirreren margoak. Abenduaren 16tik 30era, Ezkurdiko erakustaretoa. Durangaldeko Artisten Elkarteak eratu.

ERMUA

>> Giza eskubideen nazioarteko adierazpenaren 60. urteurrena. Abenduaren 13a bitartean, Lobiano kulturgunean. Ermuko gobernuz kanpoko erakundeek antolatuta.

>> Javier Areitoaurtenaren margoak. Abenduaren 15tik 30era bitartean, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

>> 'Sentimenduak'. Jose Mari Cantero, abenduaren 15a arte, Zelaieta zentroan.

>> Zornotzako Pintzelak Elkarteak. Abenduaren 16tik urtarrilaren 2ra bitartean, Zelaieta zentroan.

IKASTAROAK

ELORRIO

>> 'Emakumea eta generoa' ikastaroa, otsailaren 17a arte, martitzenero, 15:30etik 17:30era. Emakumearen Sustapenerako Bizkaiko Fundazioaren eskutik, Iturri kultur etxean. Izena emotea: 5 euro. Elorri-Lore andren elkarte.

IPUINAK

DURANGO

>> Anduriña Zurutuza eta Txefo Rodriguez ipuin-kontalariak, abenduaren 20an, Liburutegian: 17:00etan (3-5 urte) eta 17:30 (6 urtetik gora).

>> 'Munduko ahotsak' helduendako ipuin-kontalariak: 'Cuentos y fábulas de Africa Negra' Bonifacio Ofogoren eskutik (Camerún), abenduaren 20an, 20:00etan, Liburutegian. Inmigratzino Sailagaz eratu.



IURRETA

>> Virginia Imaz ipuin-kontalaria, abenduaren 12an, Liburutegian: 17:30ean (3-4 urte) eta 18:00etan (5 urtetik gora).

>> 'El sexo no bendito' Albert Astengre ipuin-kontalariaren eskutik, abenduaren 19an, 20:00etan, Liburutegian.

ZORNOTZA

>> Begoña Gomez ipuin-kontalaria (Kandelen Argipean), abenduaren 20an, 12:00etan, Liburutegian.

JAIALDIAK

DURANGO

>> Bateginezen 15. Urteurren Jaialdia, gaur, 16:30etik 21:00etara, Landako erakustazokan.

ELORRIO

>> Kainaberak antolatutako Gabonetako jaialdia, abenduaren 14an, 12:00etan, Arriola antzokian.

LEHIAKETAK

BERRIZ

>> Mari Domingi eta Oientzerori gutun lehiaketa. Abenduaren 16a arte da Udaletxean jarritako



www.ehu.es

PRAKTIKAK EUROPIAN. EPEZ PROIEKTUKO III delaldia

- Norenzati: UPV-EHUko titulatu berriak diren eta Bizkaian erroldatuta dauden pertsonentzat.
- Beka-kopurua: 45
- Herrialdeak: Alemania, Erresuma Batua, Frantzia, Italia, Portugal eta Txekiar Errepublika.
- Eskara-aria eskuratzeko lekua:
 - Bizkaiko Campuseko Enplegugunean edo www.ehu.es/enplegugunea web gunean,
 - Durangaldeko Behargintzan edo www.amankomunazgoa.com web gunean.

Izena emateko epea:

- Durangaldeko Behargintza: 2009ko urtarrilaren 12a arte
- Bizkaiko Campuseko Enplegugunean: 2009ko urtarrilaren 13a arte



 UPV/EHU enplegubizkaia@ehu.es Tf. 94 601 36 79
 Durangaldeko Behargintza orientazioa.mdurango@bizkaia.org Tf. 94 623 25 22
www.amankomunazgoa.com

postontzi berezietan gutunak sartzeko epea. Hiru sail dagoz: LH, DBH eta 16 urtetik gora. Sariak: liburu, jolas, musika, mp4 eta afaritarako txartelak (94 682 40 36 / 94 682 45 84).

MUSIKA

ABADIÑO

» **Aurora Beltrán**, abenduaren 14an, 19:00etan, Errota kultur etxean. Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna dela-eta eraturako kantaldia.

DURANGO

» **Biolin, biola eta biolontxelo kontzertua**, abenduaren 12an, Bartolome Ertzilla musika eskolako aretoan. **Gabonetako kontzertuak**, abenduaren 15etik 18ra, 18:00etan.

» **The Adolescents (USA) + Fucked Up (CAN) + Trigger Travis (Orereta)**, abenduaren 12an, 22:00etan, Plateruenean.



» **Dagoba + Cuernos de Chivo + A.D.**, abenduaren 13an, 21:00etan, Plateruenean.

» **The Marzipan Man**, abenduaren 18an, 22:00etan, Plateruenean. **Hesian + Trapatoni Circus Band**, 19an, 22:00etan.

» **XIX. Musika Hamabostaldia: 'Karabas' umeendako musikala (Golden Apple Quartet & Kanpingags)**, hilaren 21ean, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

» **Gabonetako kantak**, abenduaren 20an, San Agustin kulturgunean. Palentziako zentroak antolatuta.

» **Su Ta Gar**, abenduaren 26an, 22:00etan, Plateruenean. 20. urteurren ospakizun bira. Hilaren 27an, **Esne Beltza**.



ELORRIO

» **Gazteone Dantz**. Abenduaren 20an, disko festa, 18:30etik 21:00etara, Ateneoan (13 urtetik gorakoentzat).

» **ArriolanRock: The Sermonds + Namen Planet**, abenduaren 26an, 23:00etan, Ateneoan. **'Karabas' haurrentzako musikala (Golden Apple Quartet & Kanpingags)**, hilaren 28an, 17:00etan, Arriolan.

ERMUA

» **Alboka musika eskolako ikasleak + Javier Fernandez soinujolea + Zumake taldea**. Abenduaren 13an, 20:30etan, Lobiano kulturgunean. **Alboka musika eskolako ikasleak**, hilaren 17an eta 18an, 19:30etan.

» **Fadoak: Ventos de Saudade**. Abenduaren 26an,



22:15ean, Lobiano kulturgunean. Hilaren 27an 12:30ean, **Ermuan kantuan kalejira**. Orbe Kardinala plazatik urtenda.

MALLABIA

» **'Oizpeko ohitura, kantu eta dantzaz' : Jasokune eta Mendibil abesbatzak + lurretako dantzariak**. Abenduaren 27an, 19:00etan, frontoian.

ZORNOTZA

» **Terela Gradin + Gem Trio**. abenduaren 18an, 21:00etan, Zelaieta zentroan.



ZINE-KLUBA

BERRIZ

» **Zine emanaldia**, abenduaren 14an



Abenduaren 21ean eta 28an

KARABAS, BOTADUN KATUA

Umeei zuzendutako antzezlan musikatuak dakar abenduak. Durangon lehenengo eta Elorrioren gero, 'Botadun katua' ipuin klasikoaren egokitzapen musikatuak jatorri Golden Apple Quartet & Kanpingags-en eskutik: 'Karabas'. 'Galipob' lanagaz ekindako bideari eusten deusie, ipuinen alderik dibertigarriena hartu eta abeslari laukote on batek lagunduta, antzerki eta musika produktu on bat eskainiz.

eta 21ean, 19:30ean, Kultur Etxean. Umeendako saioa, 17:00etan.

DURANGO

» **Durango Zineman zikloa: 'Eligió el infierno' pelikula**, abenduaren 17an, 20:15ean, San Agustin kulturgunean. Gerediaga elkarteak eraturuta.

ERMUA

» **Umeendako zinema: 'Cuentos de Terramar' filma**, abenduaren 14an, 17:00etan, Lobiano kulturgunean. Abenduaren 21ean, **'Santa Claus: por una navidad sin frío' filma**. Beste alde batetik, **Dokumentalen zikloa: 'Sanfermines 78'**, abenduaren 18an, 21:30etan.

ZORNOTZA

» **Roman zikloa: 'Occidente' pelikula**, abenduaren 16an, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Ultimatum a la Tierra
Zuzendaria: Scott Derrickson
barikua 12: 19:00 / 22:00
zapateria 13: 19:30 / 22:30
domeka 14: 19:30 / 22:30
astelehena 15: 19:00 / 22:00
martitzena 16: 20:00



Umeendako zinema

Atrapado en un pirado
zapateria 13: 17:00
domeka 14: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia
Los niños de Huang Shi
Zuzendaria: Roger Spottiswoode
zapateria 13: 22:30
domeka 14: 20:00
astelehena 15: 20:00



Umeendako zinema

Lepel
domeka 14: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa
Red de mentiras
Zuzendaria: Ridley Scott
zapateria 13: 22:00
domeka 14: 20:00
astelehena 15: 20:00



Umeendako zinema

Street dance
domeka 14: 17:30

BOTIKAK

- Barikua, 12**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Zapateria, 13
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murua Torre 2C - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Campillo / Mugica / Sagastizabal / De Diego / Navarro / San Roma / Balenciaga (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)*
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)*
Domeka, 14
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
09:00-22:00
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)
Astelehena, 15
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
Martitzena, 16
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
Eguaztena, 17
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Cristina (Trañabarren 15 - Matiena)
Eguena, 18
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112	UDALAK	Txanporta KE94 620 36 47
DYA94 620 28 00	Abadiño94 621 55 30	Errota KE94 466 94 16
Gurutze Gorria94 681 09 49	Atxondo94 682 10 09	Gorabide94 681 24 35
Osakidetza94 600 72 00	Berriz94 682 45 84	Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Ertzaintza94 466 93 00	Durango94 603 00 00	Nekazal bulegoa94 681 15 20
Suhiltzaileak112	Elorrio94 658 27 12	Uren Partzuegoa ..94 681 74 86
GARRAIOAK	Garai94 681 63 93	Butanoa (UME).....94 681 08 77
Euskotren902 54 32 10	lurreta94 620 12 00	Araztegia94 620 28 00
Durango94 681 02 32	Izurtza94 681 35 48	Foru Ogasuna.....94 681 07 42
Bizkaibus94 448 40 80	Mallabia943 17 14 61	INEM Durango94 681 12 96
Pesa902 10 12 10	Mañaria94 681 89 98	Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Continental Auto945 286 466	Otxandio945 45 00 20	Epaitegiak.....94 603 00 51
TAXIAK	Zaldibar94 682 70 16	KIROLDEGIAK
Abadiño946 814 470	UDALTZAINGOAK	Igerilekua
Atxondo946 821 305	Abadiño94 621 55 33	Astola94 620 29 29
Berriz946 824 461	Berriz94 682 40 36	Igerilekua
Durango Geltokia946 811 001	Durango94 603 00 10	Atxondo94 623 14 38
Goco Tour946 202 860	Elorrio94 682 02 18	Berriz94 682 43 74
Tele Taxi944 102 121	lurreta94 620 08 88	Durango
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026	BESTELAKOAK	(Landako).....94 621 51 30
Elorrio R. Tejerina ..946 820 040	Arriola94 658 31 92	Durango
M Galeano.....946 582 854	San Agustin94 603 00 21	(Tabira)94 621 51 50
Garai946 812 483	Zornotza Aretoa94 630 01 68	Elorrio94 682 10 27
lurreta946 201 565	Gazte informazioa 94 603 00 30	Zaldibar94 682 73 74
Mañaria946 818 278		

EGURALDIA

- 3**
8° BARIKUA ☁
- Egoerak hobera egingo dauela itxaron leiteke. Euri gitxi egingo dau, eta une askotan ateri eutsiko deutso. Termometroa igotzen hasiko da elur-maila 1.000 metrotik gora kokatuz. Giro lasaia izango dogula emoten dau.
- 7**
7° ZAPATUA ☁
- Eguna ia euririk barik hasiko dogu, baina, arratsalde eta gaeuan, fronte baten eskutik, giro euritsua bueltatuko da. Azken orduetan zaparradak ugariak izango dira.
- 6**
8° DOMEKA ☁
- 6**
6° ASTELEHENA ☁
- 6**
7° MARTITZENA ☁

EDERTASUN GIDA

Ileapaindegiak

M^a JESUS LUQUE
• ileapaindegi unisexa •



Kurutziaga
9 behea
94 681 43 89
48200 Durango

Pilar Ruiz
• ileapaindegia •



SABECO Zentro komertziala • Tel.: 94 681 03 96



- Virginia Ansorena
- Estetizista da
- Estetika zentroa dauka Durangon

Fotogaztetzea

Zer lortzen da tratamendu honen bitartez?

Orokorrean, azalaren itxura gaztetzea da tratamendu honen helburua: zimurrak leuntzen doguz, azaleko orbainak ezabatu egiten doguz edo behintzat disimulatzea lortzen dogu ...

Aurpegiak bakarrik egin leiteke?

Ez, aurpegiak bakarrik ez: eskutan, lepoan eta eskotean be egin leiteke.

Zenbat denpora irauten dau tratamenduak?

6-8 sesino egin behar dira urte bateko epean. Lehenengo bi sesinoak 15 eguneko epean egiten dira, baina beste guztiak –hau da, gelditzen diren 4 edo 6 sesinoak– hilean behin egiten dira.

Nori zuzenduta dago tratamendua?

Printzipioz, edozein pertsonari dago zuzenduta. Halan be, tratamendua hasi baino arinago espezialistagaz berba egin behar da, tratamendua egin ahal dogun ala ez baieztatzeko, eta, gero, tratamenduaren nondik norakoak zehazteko. Izan be, baktxaren azala eta egoera konkretuaren arabera produktu ezberdinak erabiltzen dira.

Beste gaztetze metodo batzuekin alderatuta, zer abantaila dauka tratamendu honek?

IPL argia erabiliz egiten den tratamendua da, ez dau minik emoten eta lehenengo sesinotik ikusi leitezke emaitzak. Izan be, argiagaz tratatutako azala lehenengo sesinotik hasten da birsortzen. Oso emaitza onak emoten ditu.

NUKLEO
ileapaindegia



myspace.com/pelukerianukleo
Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96

Adatz
• ileapaindegia •



- Irudi aldaketa
- Ilerako tratamenduak
- Fotodepilazioa

Zublaurre, 4 behea • IURRETA • Tel.: 94 620 06 28

Estetika Zentruak

Virginia Ansorena
• estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekainen diseinua
- Maniketa
- %40ko deskontua izterondo eta besapetako fotodepilazioan



San Agustinalde, 1^aA-1^aC. 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbi.: 663 716 017

Ana Camarero
• apaindegia •

LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA



- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1. esk. • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

FOTODEPILAZIOA

- Laser diodoa (azal beltzarana)
- Alejandrita (ile argia)
- Neodimio Yag
- Argi pulsatua



zura azalaren leuntasuna gozatu

URANGO - Simodu kalea, 1 • Tel.: 94 621 59 27
ERNIKA • BARAKALDO • www.fotodepilaser.com

Cristina Agirre
• apaindegia •



- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- MANIKURA • PEDIKURA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9 - 1^aB • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

KIROLAK >



Kepa Aginako

Ligan helburu guztiz ezberdinak dituzte Sasikoak eta Elorrioko Buskantzak. Durangarrek mailaz igo nahi dute; elorriarrek, berriz, dutenari eutsi nahi diote, ahalik gutxien sufrirituta. Saillapenak, ordea, ez du helburuetan dagoen alderik islatzen. Sasikoa goian dabil, espero zen legez, lidertzatik puntu bira. Baina Elorrioko Buskantza ere bolada onean dago, oso golegile, gainera, eta zuloa baino hurrago dute zerua. Beraz, bihar Elorrioko jokatuko duten derbiak parekotasuna du ezaugarri nagusi.

Iñigo Astarloa Elorrioko jokalaria Sasikoaren kalitatea azpimarratzen du: "Aldea markatzen duten hiru-lau jokalarik dituzte, eta gutxien espero duzunean partidua hautsi dezakete". Nola aurre egin horri? "Taldea lanarekin. Horrek izan behar du gura arma nagusia partidua irabazi nahi badugu".

Indarrak parean

Aitor Olivares Sasikoako jokalaria ere elorriarren blokeari errespetua dio: "Taldea legez oso indartsuak dira; batez ere, etxean. Etxeko partiduetan grina handiz jokatzen dute eta gol asko sartzen dituzte."

Biak bolada onean

Taldea biek irabazi egin zuten joan zen asteburuan. Sasikoak garaipen handia lortu zuen orduan lider zegoen Laudioko Izkepot taldearen aurka (4-2). Partidua azken 35 segundotan erabaki zen. Bina zihoazela, aldeko penalti bikoitza baliatuz aurretik jarri ziren. Laugarrena segituan iritsi zen, Laudioko atezain-jokalariaekin etsi-etsian zebilela.

Elorriokok etxetik kanpora aurtengo hirugarren garaipena lortu zuen Urretxun, Goierriren kantxan (2-5). Partidu osoan aurretik joan ziren eta merezimendu osoz irabazi zuten.

laz bakoitzak derbi bana irabazi zuen, zeinek bere etxean jokatutakoa

Nabari denez, talde biak golegile dabilta. Hala ere, litekeena da partidua ezberdin planteatzea. Ligan, orain arte, Sasikoak beti eraman izan du partiduen pisua. Aurkariak kontraerasora jokatuta izan die. Ematen du etziko derbiak ere eskema horixe jarraituko duela.

Irailean, Elorrioko jaietan, adiskidantzako partidua jokatuta zuten, eta Sasikoak 3-7 irabazi zuen. Laz, berriz, bakoitzak derbi bana irabazi zuen, etxean jokatuta zituzten partiduetan, hain zuzen ere. ■ J.D.

bbk=

atera gorria!



www.bbk.es

BBK26=

abantaila eta deskontu pila

Perezek jantzi zuen txapela emozioz betetako finalean

Sekulako partidua jokatu zuten Ibai Perez eta Gorka Estebanek XXIII. Cafés Baqué Txapelketako finalean; borrokatua, parekatua eta tanto on askokoa izan zen



Kadeteetan Tainta nafarrak Galarza galdakoztarra menderatu zuen. Judit Fernandez

Ibai Perez sestaoarrak eta Gorka Esteban errioxarrak ikuskizun ederra eskaini zuten Mañarian, Cafés Baqué Txapelketako gazteen finalean. Emozioa, tanto borrokatuak, asko ondo bukatuak, frontoia lepo...

Latz defendatu zuen Perezek, eta tantoa zehatz bukatu

final bati eskatu dakizkiokeen osagai guztiak izan zituen. Biek mereti zuten txapela, baina batentzat behar, eta Perezek jantzi zuen (22-20). Beraz, bosgarren urtez segidan Bizkaian geratu da txapela.

Bi jokamolde guztiz ezberdin ikusi genituen kantxan. Estebanek atzean hautsi nahi izan zuen partidua; Perezek, aldiz, dejadak izan zituen aliatu nagusi. Sestaoarra 18-13 aurreratu zenean, txapela eskuan zuela zirudien, baina, ustekabean, Esteban 20-21 hurbildu zitzaion.

Kadeteetan Taintak errazago menderatu zuen Galarza (18-10)

Tentsioa handia zen arren, Perez ez zen kokildu eta dejada zehatz baten bidez iritsi zen 22ra. Bienztat izan ziren txaloak.

Kadeteetan Tainta nagusi

Aurretik, emozio gutxiago izan zuen kadeteetako finala jokatu zen. Iker Tainta nafarrak errazago menderatu zuen Kermen Galartza galdakoztarra (18-10). Zazpinakora arte, lanak eman zizkion, baina handik aurrera Tainta aldetxo hartzen joan zen apurka-apurka. Partidua 12-9 hautsi zen behin betiko eta txapelduna ia zuzenean joan zen hemezortzira. ■ J.D.

Pilotari elorriar bi Olazarko finalerdietan

Zaldibarren jokatzeko ari den XXI. Olazar Txapelketa azken txanpan sartuta dago. Atzo gauean lehenengo finalaurrekoak jokatu ziren. Lau'terdian Jauregi arabarra eta Perez sestaoarra lehiatu ziren; binakakoan, berriz, Ollo eta Keralt nafarrak Mendizabal eta Jauregi gipuzkoarren kontra izan genituen. Partidu bi horietako emaitzak eta kronika www.anboto.org orrialdean daude ikusgai.

Datorren egunean jokatuko dira bigarren finalerdia. Lau'terdian zein binakakoan durangaldeko ordezkari bana izango dugu: Jaunarena eta Larrinaga elorriarrak. Landaburuk Jaunarena nafarraren kontra neurtuko ditu indarrak. Binakakoan, berriz, Larrinagak eta Urrutikoetxea zaratamorrak Erauzkin II.a lemoarraren eta Lopez ortuellarraren aurka jokatu dute. Partiduak 21:30ean hasiko dira.

Zesta-punta txapelketa

Sei bikoterekin abian da Zesta Puntako Elite Txapelketa. Lehen jardunaldian Salaberry-Ibon eta Navascues-Biurrun bikoteek garaipen garrantzitsuak lortu zituzten Durangon.

Salaberryk eta Ibonek 35-32 irabazi zieten Lizasoain eta Aldekoari. Navascuesek eta Biurrunek ere justu menderatu zituzten Peio eta Urbieta (35-33).

Pilota ahalik eta leku gehienetara eramaten

Oraintsu sortu den Eraman pilota profesionaleko enpresak helburu nagusi bat du: udan pilota jaialdiak antolatzea, horretarako prest dauden pilotariek. Bestelako kirol jaialdiak ere antolatzen dituzte -herri kirolen ingurukoak, adibidez- baina, batez ere, pilota partiduak.

Eramanek pilota profesionaleko bi enpresa nagusiek (Aspek

eta Asegarek) estaltzen ez duten hutsunea bete nahi du. Eramaneko bultzatzaile nagusia den Miguel Azkuneraren esanetan, "eliteko pilotari horiek kopuru osoaren ehuneko txiki bat dira, eta gu beste eremu horri irtenbidea ematen saiatzeko sortu gara".

